

...eta Kitto!

2019-VI-7

1103 zkia.



Kirola Euskaraz Bizi



Administrador
Fincas
Colegiado

ADMINISTRAZIOA


- ✓ Aurrekontua
- ✓ Kontabilitatea
- ✓ Jabeen batzarretan izatea
- ✓ Aktak egitea

KUDEKETA

- ✓ Obrak
- ✓ Lizentziak eta laguntzak
 - Eusko Jaurlaritzaz
 - Udala

LEGE AHOLKULARITZA

- ✓ Jabetza horizontala
- ✓ Ezordaindutako enereklamazioa
- ✓ Sormen berriko komunitateen eraikuntza



Zure eskura jartzen dugu zure komunitateari dagokion informazio guztia urteko egun guztietako 24 ordutan

KOMUNITATEEN ADMINISTRAZIOA

30 URTETIK GORAGOKO ESPERIENTZIAK BERMATZEN GAITU

943 200 358 - www.eukicomunidades.com - ARRETA PERTSONALIZATUA ETA TELEFONOZ: 09-14:00 eta 15:30-19:30

Ford Kuga EcoBoost

18.800€-rengatik

berriz erostea bermatuta

FCE Bank-eko Ford MultiOpción-ekin finantzatuta

FORD KONDIA

EIBAR

Otaola Etorb., 22
20600 Gipuzkoa
T. 943 202 091

IURRETA

Santa Maña Auzoa, 19
48215 Bizkaia
T. 946 815 569



Bizitza kanpoan dago. Eta zu?

Deskubritu gure Ford Kuga, zure egunerokotik kanpo bide berriak aurkitzera gonbidatzen zaituen autoa, barruan duena ahaztu gabe: EcoBoost bere motorra, askorentzat munduko gasolinazko motorrik onena. Ford-ek, aurten ere, saria jaso duelako 11. aldiz IEPTY sarietan EcoBoost 1.0 motorrarenegatik, bere mailako motor moldakorrena izateagatik.



KONDIA

www.fordkondia.com

AUKERARIK GABEKO FORD KUGA GAMA: KONTSUMO WLTP ZIKLO MISTOA 6tik 9,7 L.-ra/100KM. CO₂ WLTP EMISIOAK 156tik 220 G.ra/KM (136tik 204 G-ra/KM NEDC), NEURTUTA INDARREAN DAGOEN ARAUTEGIARI JARRAITUTA. CO₂ emisioen baloreak aldatu daitezke aukeratutako ekipamenduaren arabera. NDEC baloreak autoaren erosketari lotutako fiskalitatega kalkulatzeko egokitzat jotzen direnak izango dira.

Kuga Trend 1.5 EcoBoost 4x2 88,3KW (120cv) Ford Sync 10,67zm-ko (4,2") TFT pantailadun CD irratia, eskuzko klimatizadorea, egunez gidatzeko faroak, larruzko bolantea, abiadura-kontrolerako gurutzadura kontrola, giltzarik gabeko abiaburua. Eskaintzak BEZ, garrarioa, IEDMT (Hainbat Garraio Baliabiderako Zerga Berezia, Erkidego Autonomo bakoitzean aldatzen dena, eta kasu bakoitzean gainbegiratzea gomendatzen dena), promozio-deskontuak, diru-ekarpena. Kontzesioa eta deskontua FCE Bank plc. S.E. finantzatzeagatik Ford MultiOpción bidez 12.000€-ko gutxieneko kopuruarekin eta 25 hilabeteko gutxieneko iraupenarekin. Kreditu balorapenari lotutako operazioa. Eskaintza aplikagarria hilabeteen eskatutako unitateel. Ikusten den ereduak ez du zertan bat etorri beharrik eskaintako autoarekin. Penintsulan eta Balearrean baliagarria hilabetea amaitu arte. Ezingo da lotu beste deskontuekin. Multiopción-ekin finantzatzerakoan, FCE Bank-ek azken kuotaren ordainketarako emandako autoaren etorkizuneko gutxieneko balioa bermatzen du (kontratua baldintzei lotuta). ford.es



Euskara Elkarte

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkarte.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18 /
603 598 285.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi
eta Silbia Hernandez

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
J.L. Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:
Malen Jainaga
eta Malen Illarramendi

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta Maider Aranberri

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia

TELEFONOA: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:
Iturburu Ikastola

BANAKETA-ARDURA:
Mohammed El Ghabali

TIRADA: 8.150 ale

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!* k ez du bere gain hartzen aldizkarian
adierazitako esanen eta iritzien erantzunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDEZTA)

eskutitzak

– 1101. aleko azalari buruz –

Maiatzaren 24ko ...eta kitto! astekariaren azalarekin asmatu edo ez asmatu, azal bakar batek ezin ditu zalantzan jarri elkartearen oinarri sendoak, gure ibilbidea eta eguneroko lana. Dena dela, elkartearen barruan publizitate-irizpideak berraztertzeke hausnarke-
ta abiatuko dugula jakinarazi nahi dugu.

...eta kitto! Euskara Elkartearen zuzendaritza

– Sanjuanetarako laguntasun eske –

Jaixak Herrixak Herrixandakok herrigintzan siñesten dau, auzolanian eta jai eredu euskaldun, feminista, partehartzaile eta herrikoietan. Herritik eta herriarendako sortuak. Jaixak antolatzeke barixakuero (eguraldi ona badago) Txaltxako kioskuan alkartzen gara danondako jai zoragarriak sortzeke asmuarekin.

Azken urtiotan jaixa asko hazi da, gazte, heldu eta umiak etortzen zarie Eibarko txosnagunera eta Jaixak-ek maitasun eta gogo haundixarekin antolatzen daben egitarau guztira. Horren adibide paregabia Untzaga plazan egiten dan bazkari erraldoia da. 700 lagun alkartzen gara eta hori zoragarria da, baiña... holako egitaraua preparatzeko denbora luzian bihar haundixa egiten daben jendia dago atzian. Barixakuetako bilerak, dinamizaziua, barrako turnuak, edarixak eskatzia, txosnetarako eskaeria egittia, kartel eta kamisetaren diseiua, danon gustokuak diran kontzertuak aukeratzia, pankartak egittia, San Juan sua preparatzia, ire-

kiera ekitaldixa prestatzia, bazkariko tiketak saltzia, bazkariko "kamarero" lanak, mahaixak montatzia, sagardau botillak zabaldu... eta abar luze luze bat.

Horregaittik aurten, batez be azken urtiotan bazkarixak hartu daben dimensiua ikusitta, tiketa eros-terakuan txandak banatuko dittugu, batez be Gazte Egunarekin lotuta dagaunenetarako. Holako jaixak danon artian sortu bihar dittugulako, danon esku eta buruekin eraikitzen diralako eta danok pixka bat lagundu ezian, gitxi batzuren gainian jausten dalako bihar guztia.

Eta... jaixak danok ondo pasatzeko dira, ezta? Hor-taz, Jaixak-etik zuen laguntasuna eskatzen detsuegu danok, eta ez batzuk bakarrik, goza deigun Sanjuan zoragarri FEMINISTA, HERRIKOI, PARTEHARTZAILE ETA EUSKALDUN batzuekin!

Jaixak Herrixak Herrixandako

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

MIRA.- Miresmena. "Ni banintza bedorren begirakuna bat merezi dorana, mira haundixaguakin ikusiko zenduke, ni bezelako gizakume apalak, ziur bai norbait ospatzen dabela".

MIRA EGIN.- Harritu, miretsi. "Ez jata mira egitten zuk horretara iriztia".

astean esanak

"Erkidego historikoei aipu egitean, Espainian Katalunia, Euskadi eta Galizia aipatzen dira, bakarrak balira bezala. Erkidego horiek historikoak direla inork ez du zalantzan jartzen, baina hori ez da egi bakarra. Datu moduan, errealtatea askoz konplexuagoa izanda ere, Gaztela-Leongo, Aragoiko eta Nafarroako banderak XIV. mende aurretikoak dira, ikurriña eta Galiziako banderak XIX.ekoak direnean. Nazio sentimendurik erakutsi gabe ere, erkidego batzuk hainbat erreinu ordezkatu dituzte mendeetan"

(ALEX GRIJELMO, HISTORIALARIA)

"Japoniako autopista-peajetan edo aparkalekuetan pertsona batek kobratzen du, ez makina batek; eta metro-estazioetan brigadek laguntzen diete bidaiariei bagoietan sartzen. Puntako kasua aipatzen zuten *The Economist*-eko azken alean: hiru kamarero *martini* bat prestatzen. Japonian txarto ordaindutako eta errepikakorrek diren milioika enplegu dituzte, langabezi-tasa %3an eusteko. Lanaren amaieraren gaia pil-pilean dago azken aldian, makinek gero eta gauza gehiago egiten baituzte; hortik dator errenta unibertsalaren eskaera. Aukeratu behar dugu. Zer da hobe? Soldata ez duineko lan bat edo maila bereko subsidio bat"

(ENRIC GONZALEZ, ZUTABEGILEA)

"Botere autonomikoa bere onena emanda dago jada, eta ez du sekula Euskal Herri euskalduna ekarriko. Gizarte egiturak aldatu behar ditugu, kulturalak diren eta egunero erreproduzitzen ditugunak; maila berean, berriak produzitu. Gaurko politika gaitutiko dituen potentzia soziala behar dugu, herrikoa. Gauza asko egin dira literaturan eta pentsamenduan, baina uste dut urrats bat gehiago egin behar dugula. Konforma gaitzen xumeago bizitzearekin; egin dezagun iraultza. Eguneroko militantziaz ari naiz. Merkatu eta legeen ikuspegitik atera behar genuke, inpresioa baitut ikuspegi utilitarista handia dugula."

(PAULO IZTUETA, IKERLARIA ETA IDAZLEA)

Eid-fitr ospatzeko jaixa egingo da domekan Untzagan

Aste honetan amaittu dabe Ramadan mundu guztiko musulmanak eta, horren atxekixarekin, Eibarko Gazte Safa eta Toyor Al Jannah alkartiak Eid-fitr, Ramadan amaierako jaixa eurekin batera ospatzera gonbidatu nahi dabe jende guztia. Asmo horrekin domekarako preparau daben jaialdixa izango da Untzagan, 12:00etatik aurrera. Juaten diranerri ongiatorrixa emon eta jarraxan, 12:30xetan dastaketa popularra egingo da. 13:00etatik 14:00xetara, barriz, informaziñua emoteko gunia egongo da, umiendako globo taillarrarekin batera. Programia biribiltzeko henna taillarra (13:00etatik 15:00etara) eta Dakka Marrakchia musika taldiaren emanaldixa (14:00xetatik 15:30xetara) antolatu dittue.

“Atzerritartasun arautegixa” hitzaldixa, eguenian Portalean

Udaleko Inmigraziño Atalak, Eusko Jaurlaritzaren babesarekin antolatuta, eguenian (ekaiñaren 13) atzerritartasunari eta nazionalidadia lortzeko prozedurari buruzko saiua egingo da Portalean (ikastaro gelan, 3. solairuan), 19:00etatik 21:00etara. “Atzerritartasun arautegixa” izenburuko hitzaldixa atzerritarreri ez eze atzerriko pertsonekin edozelako hartuemona dakeneri eta informaziñua jaso nahi daben gaiñerako herritarreri be zuzenduta egongo da eta sarrera duan izango da.



Dendarixen Alkartekuak 50 euroko 150 erosketa-txartel oparituko dittue

Eibarko Dendarixen Alkartiak “Erosketen 2. Ibilbidia” izeneko ekimena ipiñi dau martxan: ekaiñaren 15era arte alkarteko kide diran 10 dendatan zeozer erosi eta, promozioñorako etara daben orrixan denda horretako zigillua markatzen daben artian, 50 euroko 150 erosketa-txartel oparittuko dittue. Promozioñuan parte hartu ahal izateko zigilluak markatzen daben orrixan alkarteko 10 denda ezberdin agertu biharko dira markauta eta danera 200 eurutako gastua

egin biharko da gitxienez (ez dau balixo 200 eurua toki bakarrian gastatzia). Gaiñera, toki bakoñxian egindako erosketaren tike-tak gorde eta Dendarixen Alkartera (Urtzaille, 1 ext. 12. lokala) eruan biharko dira, orrixarekin batera, han dana ondo daguala konprobau eta datuak hartu deixen. Dana zuzen presentatzen daben lehen 150 lagunak jasoko dabe sarixa (erosketa-txartelak ekaiñaren 19xan, 13:30xetan banatuko dittue alkarteko lokalian).

asteko
255.957
datua

euroko aurrekontua dake aurtengo Sanjuanak: 19.510 (%7,62) danborradak; 24.041 (%9,39) kuadrillak eta txosnak; 36.559 (%14,28) herriko taldiak antolatutakuak; 100.366 (%39,21) kontzertu, berbena eta musika emanaldixak; 16.646 euro (%6,50) suzko-erroberak; 30.113 (%11,77) antzerki eta animaziñuak; eta 28.718 (%11,22) hornidura eta bestelakuak.



“Bizi Errebal” kanpaiñako saridunak pozik 300 euroko erosketa-txartelak eskuan

Aurreko barixakuan banatu zittuen “Bizi Errebal” kanpaiñako erosketa-txartelak saridunen artian, Ibarkurutzeko iturririxan. Eibarko Udalaren eta Eibar Merkataritza Gune Irekiaren ekimenez jendia Errebal inguruko taberna eta dendetan erostera animatzeko asmuarekin abiatutako kanpaiñan 43 establezimenduk hartu dabe parte eta, horretako bakotxak 300 euroko erosketa-txartela oparitu dau, maiatzaren 6tik 25era bittartian zeozer erosi daben bezeruen artian zozketia egin eta gero. Guztira 12.000 eurotik gora banatu dittue saritan. Saridunak pozarren jaso eben sarixa, talde argazkixan ikusi leikian moduan. Zorionak!

autuan

XVI. GARAGARDO FERIXIA

Eibar Rugby Taldia ren eskutik urtero Sanjuanak aurretik egitten dan Garagardo Ferixia martitzen arratsaldian zabalduko dabe Untzagan, plazan ipiñiko daben karpán. Betiko moduan, garagardo moeta desberdiñak edateko aukeria egongo da, jatekuarekin lagunduta. Ekaiñaren 16ra arte egunero zabalik egongo da 17. ediziñua beteko daben Garagardo Ferixia, arratsaldeko 19:00etatik aurrera.



DENDARIXENDAKO DIRU-LAGUNTZAK

Dendak modernizatzeko diru-laguntza deialdixa egin dabe Eusko Jaurlaritzatik eta Eibarko Merkataritza Dinamizatzeko Buleguak horrek tramitauko dittuala emon nahi detse aditzera interesa dakeneri. Informaziño gehixago nahi dabenak 943206669 edo 943207694 telefono zenbakixetara deittu ahal dau (Leire edo Iñaki).

FM Funeraria-Ehorztetxe
Mugica

EIBAR

Beilatokia
Funeuskadi Eibar:
Otaola, 27

ELGOIBAR

Beilatokia:
SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean

Bulegoa Bidebarrieta, 20

24 orduko zerbitzu iraunkorra

📞 943 20 19 51 www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea **GRUPO Funeuskadi**

CAPI Bidebarrieta, 5
943 201 547
www.capiestetica.es

Coolifting®
Lifting tratamendua

BETILE LUZAPENAK / LIFTING

GORPUTZ TRATAMENDU BERRIA

ZELULITIS Arekin
ERAGINKORRA DEN
TEKNOLOGIA BAKARRA

ZONALDEAK izterrak ipur-masailak besoak sabelalde

Azalaren ELASTIKOTASUNA hobetzen du

Asteburua beteko dabe Urki auzoko jaixak

Aurreko astian aurkeztu zittuen asteburu honetan ospatuko diran Urki auzoko jaixak, antolatzailliak Aterpe alkartian egin eben prentsurrekuan. Gogora ekarri ebeenez, iazko jaixetan egindako eurixaren ondorioz kontzertua eta beste hainbat jarduera bertan behera laga bihar izan zittuen; baiña, halanda be, aurten eguraldiak laguntzia espero dabe eta, betiko moduan, gaur hasi eta domekara bittartian, asteburu osua betetzeko moduko programia osatu dabe jai batzordeko kidiak.

Gaur 19:00etan ekingo detse jaixari Arrateko Andra Mari herri ikastetxian eta, arratsaldian, bestiak beste, futbolin txapelketia, jolasak, nagusixerri omenaldixa eta Ustekabe txarangakuak girotutako kalejira eta txikiteua egingo dittue. Gabian, barriz, Ekhy taldekuak erromerixia eskinduko dabe, 23:30xetatik aurrera. Bixarko eguna Txiki-Krosarekin hasiko dabe, 11:00etan Urki-Kurutzekuan (parkean).



Aurreko asteko eguenian egin zebe Urkiko jaixen aurkezpena.

Egunian zihar trikitilarixen kalejira, herrikirolak, puzgarrixak, jolasak eta esku pilota eta igel-toka txapelketak egingo dira eta 19:00etan, barriz, Sanbulu taldekuak girotuko daben txanpan eta otarrainxka jaixa hasiko dabe. Eta gabian, 23:30xetan hasiko da Tributo AC/DC BS/RS Bon Scott Revival Show taldiaren kontzertua. Eta hori amaittu eta jarraixan, musikiak

segiduko dau DJ Sanen eskutik. Eta domekan be egun osorako plana preparau dabe: XI. Galdaramiño igoeria eta Atzegiren mendi martxa, Os Galaicos As Burgas Galiziako Etxeko gaiteruekin kalejira, paella lehiaketia, Eibarko Cielito Musika Bandaren kontzertua, mezia, Euskalzumba Xaiborrekin, txokolate-jana eta musika festa Maran taldiaren eskutik.



Ingeniaritza Eskoliak kalidadezko irakaskuntzari aitortpena jaso dau

Euskal Herriko Unibertsitateak UPV/EHuren aitortza diplomiamon zetsan Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolari (GIE) maiatzaren 31n "Iortutako bultzada, sostengu eta emaitzengaittik". Izan be, Docentiaz Programiak irakaslien erdixari egindako ebaluaziñua gairditu dau Eibarko ikastetxiak eta, horregaittik, Ingeniaritza Eskolako irakaslieri be Bikaintasunezko Irakaskuntza Diplomiamon zetsen. Ekitaldira Eibarko ataleko bi

irakasle, Jose Ignacio San Martin Diaz eta Cristina Peña Rodriguez, Energixa Barriztagarrixen Ingeniaritza Graduko irakasliak jua ziran. Bestiak beste, ikasliak klasienguruan daken eritxixa, irakasle bakotxak emoten dittuan irakasgaixen plangintzari buruzko datuak eta irakaslien merezimenduak (egindako prestakuntza ikastaruak, zuzendutako doktorego tesiak, argitalpenak...) hartzen dittu kontuan irakasliak ebaluatzeko programiak.

"Marketing Day" antolatu dau Ekingunek

Ekingune alkartiak antolatuta, eguenian (ekaiñaren 13an) "Marketing Day" izenekua egingo dabe Ipuruan, Eibar Kirol Elkartearen lokaletan, 09:00etatik 13:30xetara. Asier Elorriagak (LinkedIn en Branding) eskinduko daben saiaua Enpresa Txiki eta Ertaiñeri zein ekintzaillieri zuzendutakua izango da. LinkedIn-en inguruko taillarrian, bestiak beste, salmentak hobetzeko aplikaziño horri etekiña zelan etara leikixon erakutsiko dabe. Izen-emotia dohaiñik da eta ekaiñaren 11ra arte egongo da zabalik, interneteko helbide honetan: <https://ekingune.evenbrite.es>.



Nobedadiak dagoz aurtengo herri-bazkarirako txartelen salmentan

Bixar hasiko dira saltzen Sanjuanetako herri-bazkarixetarako txartelak Jaixak Herrixak Herrixandako taldekuak. Salmentia Gaztetxian egingo dabe, goizeko 11:00etatik 14:30etara eta arratsaldeko 17:30etatik 19:00etara eta aurtun badago nobedaderik: izan be, txartela erostera doiazenen artian txandak banatuko dittue, holan, San Juan jaixak ospatzeko antolatzen dittuen jardueretan egin biharreko lanak danen artian egitteko. Azaldu dabenez, "sagardau botillak zabaldu, bazkaldu ondoren garbittu... holakuak dira egin biharreko lanak. Txartelak kuadrillaka edo taldeka erosteko aukeria eukiko dau jendiak eta turnuak erosten diran txartelen arabera banatuko dittugu".



"Eibarko industria-sarearen berreraikuntza 1938-1942" erakusketia luzatu egin dabe

Aurrez ekaiñaren 2xan amaitzekua zan erakusketia uztaillaren 19ra luzatuko dabe. Eibarko Armagintzaren Museuan ikusgai dagan "Eibarko industria-sarearen berreraikuntza 1938-1942", 1937ko bonbardaketen ondorengo industria-sare eibarraren berreraikuntzari buruzko erakusketia (sarrera dohaiñik da, Museua zabaltzeko ordutegixaren barruan). Hortik kanpora, Mu-

seuan urte guztian dagan erakusketia ezagutu nahi dabenendako doako bisita gidatuak eskinduko dittue bixar, 17:00etan euskeraz eta 18:30etan gaztelera. Parte hartzeko interesa dakanak aurretik izena emon biharko dau 943 708446 telefonora deittuta edo museoa@eibar.eus helbidera idatzita (gehixen jota talde bakotxian 20 lagunendako tokixa egongo da).



Eibarko industria-eraikin guztiak interneten eskuragarri egongo dira

Ego Ibarra batzordia eskutik, Eibarko industria-eraikin guztiak sarean jarriko dira aurtun, plano historikuekin eta ardatz kronologikuari jarraituta. Azaldu dabenez, "amaittu da industria-ondarea ezagutarazteko eta antziñako industria-prozesuen balixo historikua zabaltzeko Ego Ibarra batzordiak azken urtiotan bultzatu daben ikerketaren lehen zatixa, herri osuan sakabanatuta duguaz ehundik gora taillarren historixa arkitektonikuaren inguruko dokumentuak bildu eta eraikiñak daken estilua aztertu eta gero. Ikerketaren hurrengo pausua desagertutako fabrikak aztertzea izango da". Ikerlarixak jaso dittuen datu eta agiri guztiak egoibarra.eus webgunian jarriko dittue, horretarako bereziki diseinatu daben programa batekin, "ardatz kronologikuari (PDF) jarraituta eta plano historikuen bidez Eibarko ondare historikua bistaratuta. Holan, bisitarixak herrixaren historixan zihar nabigatzeko aukeria eukiko dau".




LUIS M^a ALBERDI BERISTAIN

2019ko maiatzaren 29an hil zen,
81 urterekin



"Zu joan zara, baina zureganako gure maitasuna ez.
Ez ditugu inoiz ahaztuko izan dituzun ilusioa eta bizipoza"

ZURE FAMILIA



Errugbiarekiko maitasuna



Errugbiak ekarri du Mauro Amor gurera. Ekhi Belar

Mauro Amorren bizitza ezin da ulertu errugbi barik. Berba bakoitzean kirol honen inguruan duen pasioa erakusten du. Bere ustetan errugbia ez da kirola bakarrik, *“bizimodu bat baikik”*. Errugbiak bizitzeko ametsa bete du, lehenengo Gernikan eta orain Eibarren, eta gustora bizi da hemen. Jokalariak zaintzen edo prestatzen, zelai barruan jokatzeko edo hirugarren zatian berbetan, errugbia arnasten du Maurok.

Garagardoaren hirikoa

Quilmesen jaio zen, Buenos Aires Handian, Argentinako garagardo famatuena (Quilmes) sortu zen tokian. Hiri handia da Eibarrekin alderatuz. *“Quilmes hiru zatitan banatzen da (erdigunea, ekialdea eta mendebaldea), eta zati bakoitza Eibar baino handiagoa da”*. Maurok han egin du bizitza osoa. Hazi, ikasi, lan egin eta, noski, errugbian jokatu. *Circulo Universitario de Quilmes (CUQ)* taldean beti, Buenos Aireseko selekzioan jokatzeko gain. *“Argentinan gaizki ikusten da taldez aldatzea. Aldatzeko aukerak izan nituen, baina lagunek esaten zidaten taldez aldatuz gero ez zidatela berbarik egingo”*.

Lagunak errugbiarekin

11 urterekin hasi zen errugbian jokatzeko eta kirol honek eman dizkio lagun handie-

nak. *“Argentinan ez dago koadrilarik. Kirol bat egiten baduzu, kirol horren bitartez ezagutzen dituzunak dira zure lagunak”*. Errugbian ibilbide ona eta luzea egin du Maurok eta lagun asko egiteko aukera izan du. *“Adin guztietakoak”*. Orduak eta orduak pasa ditu zelaian, gimnasioan edo, beste barik, taldekideekin. *“Jausi egiten zara, irabazi edo galdu egiten duzu... guzti-guztia taldekideekin batera. Ez du esan nahi errugbian jokatzeko ez duen lagunik ez duzula edukiko, baina taldekide batekin bizi duzuna guztiz ezberdina da”*.

Medikuntzatik fisioterapiara

Medikuntza ikasketak egin zituen lau urte, baina fisioterapiaren bidea hartu zuen gero. Azken urteak Euskal Herria eta Argentina artean pasa ondoren, karrera amaitu du. Orain, errugbian jokatzeko gain, fisioterapeuta eta prestatzaile fisikoa da Eibar Rugby Taldean (ERT). *“Emakumezkoek asko hobetu dute eta fisikoki oso ondo egon dira, eta gizonezkoen taldean”*.

“Eh, boludo”

“Eh, mozolo”

(Nahiz eta iraina dela dirudien, guk ez dugu horrela hartzen, “eh, motel” esango bagenu bezala baikik)

egon naizen hiru urteetan oso lesio gutxi izan ditugu”. Biziki maite duen lana izanik, kontu handiz egiten du bere beharra.

Hazten doan kirola

Errugbiak eman dion lagun batek ekarri zuen Eibarera. *“Gaston Ibarburu eta Cristina Guntin (ERT-ren gizonezkoen eta emakumezkoen entrenatzaileak, hurrenez hurren) ezagutzen nituen eta ERT-ra etortzeko eskaintza egin zidaten”*. Azken urteetan errugbia asko hazi da Eibarren eta Gaston, Cristina eta Maurok dute, besteak beste, horren errua neurri batean. *“Ez dugu hemengo kultura eta izaera aldatzerik nahi, baina errugbiarekiko dugun ikuspegia partekatu nahi dugu, asko gozatzen dugulako”*.

Eibarko giroa gustoko

Gernika eta Eibar alderatuz, zintzoa da Mauro. *“Gernika politagoa da, sentitzen dut, baina Eibarren dagoen giroa asko gustatzen zait”*. Ondo egokitu da hemengo bizimodura eta Argentinako hainbat ohitura mantentzen ditu. *“Matea edatea, adibidez”*. Datorren astean Eibarren ez da materik egongo, baina bai Quilmesen hain ezaguna den garagardoa, hain zuzen ere ERT-k antolatzen duen Garagardo Jaia egingo delako. Errugbiaren osasunaren alde topa egiteko momentua izango da.

PROMOZIO BERRIA EIBARREN



ERREKATXU BERRI BIZIGUNEA



**EIBARKO
ERDIGUNEAN ETA
BISTA IREKIEKIN
DAGOEN BIZIGUNE
LASAIA.**

**GARAJE ETA TRASTELEKUA DUTEN
1, 2 ETA 3 GELATAKO ETXEBIZITZEN
PROMOZIO BERRIA.**

Kokapen ezinhobean, Eibarko erdigunean, dauden etxebizitzak: argitsuak, terraza zabalekin eta gune berdeetara begira. Sustapenak, komertzial-gunea eta supermerkatuaz gain, bilgunea eta gimnasioa izango ditu auzokideen gozamenerako.

Informazio eta benta:

900 102 220

Enpresa eraikitzailea:



Finantziatzailea eta bermatzailea:



Saltzailea:



Bizitasun handiko emakumea da Isabel Nogales. Besteei laguntzen eman du bizitza eta proiektu garrantzitsuak ditu esku artean oraindik. Perun eta El Salvadorren egon ondoren, Guatemalan bizi da gaur egun. Mila gauza egin ditu eta mila istorio ditu kontatzeko, baina bere aktibitateak ez du etenik. Familia bisitatzen egon da Eibarren eta Guatemalara joateko gonbidapena egiten dio bere proiektua ezagutu eta laguntzeko prest dagoenari (+502 5155 6412 telefono zenbakiaren bitartez kontaktatu daiteke berarekin).



ISABEL NOGALES
 (MISIOLARIA):

“Aberastasuna ez dago poltsikoan, buruan baizik”

- Noiz jaso zenuen Jainkoaren deia deritzona?

Beti eduki izan dut misiolariaren inguruko interesa eta beharrak dituzten pertsonak laguntzeko gogoia. Nerabetsuan denbora asko pasatzen duen Karmengo parrokiaren eta hor piztu zitzaidan guzti hau. Familiak ere eragina izan zuen, langile kontzientzia barneratua zuen familian hazi nintzelako. 18 urterekin bizitzan bide bat aukeratzeko ordua iritsi zitzaidan eta, familia osatu beharrean, besteen zerbitzurako ekintzak egiten ikusten nuen gehiagoneure burua. Misiolari izateko aukera bide erlijioso bano lehenago aurkitu nuen. Kongregazio misiolariari buruz galdetu nion zuzendari espirituarari, eta Eibarren kongregazio batzuk bazeuden ere, Debako karmeldar misiolariarekin joan

nintzen. Iruñeako nobiziotegian egon eta, ondoren, Madrilgo behe auzo batera joan nintzen.

- Madrilera zertara?

Hautzaindegiko irakasle moduan. Gizarte-lanaren inguruko ikasketak egin nituen eta, amaitzean, Perura joan nintzen 1977an.

- Zein izan zen zure misioa Perun?

Hezkuntzan egin nuen lan 'Fe y Alegria' izeneko eskolatan. "Errepidea amaitzen denean hasten da 'Fe y Alegria'", da eskolaren goiburua, populazioaren maila pobreenekin egiten dugulako lan. Han ez genuen ez argirik, ez urik, ezta isurbiderik ere. Beraz, hezkuntzan lan egiteaz gain, funtsezko behar horiek konpondu behar izan genituen. Bost urte itxaron behar izan genuen konpontzeko.

- Askorokatu behar izan zenuten?

Erresistentzia pasiboa egiten genuen. Pasiboa zen biolentziarik erabiltzen ez guelako, baina era berean aktiboa ere bazen, biztanleriak modu masiboan borrokatu zuelako erakundearen aurrean. Eskutakotako oinarriko zerbitzuak lortu genituen, baina ekintza hura larrutik ordaindu nuen. Agintariak iraultzailea eta Bidezidor Argitsua ('Sendero luminoso') taldeko kidea nintzela zioten, baina ez zen horrela izan. Guk modu xumean egin genuen lan herria kontzientziazten, beste barik, ez zuen kutsu subertsibo edo gerrillaria izan.

- Arazoak izan zenituen?

Eibarrera oporretan etorri nintzen eta agintariak ez zidaten utzi Perura itzultzen. Banekeen bilaketa eta harrapake-

“Misiolari izateko aukera bide erlijioso bano lehenago aurkitu nuen”

ta agindupean nengoela, lagun batek esan zidalako.

- Orduan, Eibarren geratu zinen?

Madriren hainbat urte egin nituen, Segovian ijitoen komunitatearekin egin nuen lan eta gero Parlara (Madril) joan nintzen. Migratzaile asko zegoen eta ez zuten ia ezer. Beraz, Gabon batzuetan txartel batzuk egin eta migratzaileen artean banatu nituen. Nire asmoa euren batzea zen, Gabonak ospatzeko eta euren egonaldia hobetzeko. Lehen bileran ehundik gora lagun elkartu gi-

nen. Lan eta etxebizitza beharra zuten, eta hizkuntzarekin arazoak zituzten. Beraz, gaztelera ikasteko klaseak antolatu eta kulturarteko harremanak sustatu genituen. Esperientziak arrakasta izan zuen eta sistematizatu egin genuen. Gobernuaren interesa piztu genuenez, dirua jasotzen hasi ginen, baina soldatari uko egin eta zentroa hobetzeko erabili genuen.

- Parlako esperientzia eta gero, zer egin zenuen?

Getafen klaseak eman nituen bi urtez eta, gero, El Salvadorra joan nintzen. 1992 urtea zen, eta Gerra Zibila amaitu eta Chapultepeceko Bake Hitzarmena sinatu berri zen.



“Jendeak dena ematen eta galtzen duenean, gehiago arriskatzen du zerbait lortzeko”

- Nolako egoera bizi zen El Salvadorren?

Zauriak irekita zeuden eta gabezia handiak zituzten, baina martiri izateko espiritua zutenekin egin nuen topo. Perun ikusitakoarekin zerikusia zuen, baina El Salvadorren ederra goa izan zen. Horrelako egoeretan mistika berezia sortzen da eta indar horrekin gauza asko lortu daitezke. Jendeak dena ematen eta galtzen duenean, gehiago arriskatzen du zerbait lortzeko. Jendea beti dago auzolana egiteko prest eta antolakuntzarako gaitasun handia dute. Komunitatearen beharrik antzeman eta konpondu egiten dituzte. Elizan ere kulturali ez diote denbora gehiegirik eskaintzen, akziora pasatzen dira. Euren arbasoen kulturek komunitate izaera dute, baina baita guatemalarren arbasoek ere eta hauek izaera hori galdu dute.

- Zergatik galdu dute izaera hori Guatemalan?

Neoliberalismo basatiaren ondorioz. Ez da bakarrik arbasoen kontzientzia galdu dute, euren iraganaz lotsatu egiten dira baita ere. ‘Kantxeak’ (ile-horidunak, azal zuridunak, begi argidunak...) izan nahi dute, nahiz eta euren azal koloreak euren sustraiak zeintzuk diren zehazten dien. Zurien kul-

tura menderatzailea euren arbasoena baino baliotsuagoa dela uste dute.

- Zenbat denbora egon zinen El Salvadorren?

23 urte. ‘Fe y Alegria’ eskolatan egon nintzen. Gizartearen sektore pobreetako 1.950 ikasle inguru zeuden eta ehundaka gazteri karrerak ikasteko aukera eskaini genien. Beken bitartez laguntzak lortzen genituen eta ikasle argienek hartzen zituzten. Ikasleen balio hori ez genuen alferrik galdu nahi. Izan ere, aberastasuna ez dago poltsikoan, buruan baizik.

- Ikasle batzuk aurrera egin ahal izan zuten, baina nolako etorkizuna izan dezakete besteek?

El Salvadorreko egoera okertu egin da azken urteotan. Ni iritsi nintzenean elkarri laguntzeko izpiritua zuen biztanleriak, baina orain Mara deritzon gaizkile-taldeen presentzia eta narkotrafikoa asko hazi da. Arazo honen jatorria ez dago El Salvadorren, AEB-tan baizik. Gerra Zibilean salvadortar askok AEB-ra egin zuen ihes eta gerra amaitzean itzuli egin ziren, baina AEB-tan edoskitako egoerarekin: droga, antolakuntza kriminala...

- Zergatik utzi zenuen El Salvador Guatemalara joateko?

El Salvadorren esku artean nituen proiektuak amaitu nahi nituen, baina San Pedro Pinulan (Jalapa departamendua, Guatemala) misio berria zabaldu zuten eta hara bidali ninduten. Klinika txiki bat zuten, oinarrizko zerbitzuekin, baina unibertsitatearekin akordioa



Jaboiak egiteko tailerrak egin dituzte Guatemalan.

egin eta ikasleek praktikak bertan egin ditzaten lortu genuen. Bestetik, ordenagailu-gela bat ere bazuten, nahiko txukuna, baina ikasle gutxirekin. Beraz, ikasleak geureganatzen ibili nintzen. Gainera, klinikan medikuntza tradizionalaz gain medikuntza naturala ere erabiltzen dugu eta sendabelarren ortua daukagu.

- Beste proiekturik jarri duzue martxan?

Sastraka moztu ondoren landare-haztegi bat jarri genuen fruta-arbolekin. Abeletxe txiki bat egiteko ideia ere izan nuen, bertan ekoiztutakoekin familia-abeltegi txikiak egiteko, desnutrizio handia dagoelako. Gainera, hainbat tailer egiten ditugu (xaboia egiten ikasi dugu eta ongari organikoa egin nahi dugu, adibidez).

JOSEFA GISASOLA GISASOLA

1927-01-26 / 2019-06-03



“Sekula ez zaitugu ahaztuko”

ETXEKUAK

Esker beroenak gure doluminekin bat egin duzuen guztiei



Orain dela 10 urte baino gehiago irakurtzen da ...eta kitto! astekaria

...eta kitto! hedabideari buruz egindako azterketaren emaitzak aurkeztu zituzten martitzenean **Aztiker** ikerguneko, **Hekimen** euskal hedabideen elkarteko eta **...eta kitto!**-ko ordezkariak Portalean. Aztiker soziologia ikerguneak ...eta kitto!-ren gainean egiten duen bigarren ikerketa da hau. Aurrekoa 2008an egin zen. Horrek 10 urteko bilakaera aztertzeko aukera eman du, eta, horrez gain, galdera berrien inguruko informazioa jaso da. Azken hamarkadan igo egin da ...eta kitto! astekaria irakurtzen duen herritarren kopurua eta irakurle erdaldunen artean nabarmen igo da aldizkaria erabiltzen dutenen zenbatekoa. Herritarrek oso ondo baloratzen dute aldizkaria, orain dela 10 urte baino hobeto. Eta webguneko edukiak eta sare sozialak ere ondo baloratzen dira.

Aztikerrek egindako azterketaren arabera, ...eta kitto! aldizkaria ia Eibar osoak ezagutzen du (%98,9k), eta irakurri izan du inoiz (%95ek). Azken hamar urteetan gora egin dute bi ezaugarriek.

Ikerketa egiteko 600 inkesta egin ziren Eibarren 2018ko amaieran, telefonoz eta etxerik etxe, 18 urtetik gorako biztanleen artean (orain dela 10 urte 16 urtetik gorakoan artean egin zen). Astero 14.963 irakurle ditu astekariak Eibarren (2008an 13.872 ziren), eta inkestatuek emandako puntuazioa oso ona da: 8,2.

Irakurtzeko ohiturari dagokionez, ia hamarretik zazpi azken astean irakurri dute aldizkaria (%69,2k), beste ia laurden batek azken hilabeteetan (%23,6k), eta azken urtean %5,9k. Irakurtzen den denborari begiratuta, azken hamar urteetako bilakaeran irakurtzen pasatzen den denbora jaitsi egin dela nabaritzen da. 2008an 10 minutu edo gutxiago eskaintzen ziotenak %27,9 ziren (gaur egun %40,2). Aspektu hau informa-

zioa kontsumitzeko modu eta ohitura berriekin lotuta egon daiteke.

Sexuaren arabera aztertuta, ...eta kitto! ezagunagoa eta irakurriagoa da emakumeen artean gizonen artean baino, 2008an bezala. Edonola ere, aldeak txikitu egin dira hamar urte hauetan.

Adin tarte guztietan igo da irakurle kopurua, gazteen tartean izan ezik. Adinaren arabera, zenbat eta gazteagoa izan, orduan eta sarbide apalagoa du aldizkariak. 18-19 urte biartekoan artean erdiarengana (%50,6) iritsi da azken alea eta 65 urtetik gorakoan artean %71,1engana. Orain dela hamar urteko azterketarekin alderatzen badugu, beraz, gazteen artean jaitsi egin da sarbidea eta beste adin tartean igo. Elebidunak bakarrik hartuta kontuan, ikusten da zenbat eta zaharrago, orduan eta gehiago irakurtzen dela aldizkaria eta baita denbora luzeagoz ere.

Ikasketa mailari dagokionez, duela hamar urte bezala, ikasketa maila handiko herrita-

rrengana hobeto iristen da ...eta kitto! beste sektoreengana baino, nahiz eta emaitzek oso desberdintasun txikiak dituzten ikasketa maila guztien artean. Aurreko txostenean egiten zen hausnarketa bat berreskuratuta, alde txikia izatea esanguratsua da: idatzizko produktu bat izanik, aldizkaria merkatu zabal batengana iristen da.

“15.000 irakurle ditu astero ...eta kitto!-k eta oso balorazio ona jaso du”

Lan egoerari ere erreparatu zaio 2018ko ikerketan, aurrekoan ez bezala. Adinaren araberako emaitzek islatzen dutenarekin lotuta, “erretiratu, pentsionista eta etxeko lanetan” dihardutenek irakurri dute gehien azken alea, eta “ikaslea edo ikaslea + lana” egiten dutenek gutxien.


Hizkuntza gaitasuna eta eibarrera

Hizkuntza gaitasunari dagokionez, aurreko ikerketan ateratako ondorio nagusia berresten da: harreman estua dago ...eta kitto! irakurtzeko ohitura eta euskara gaitasunaren artean. Baina oraingo ikerketan harreman hori asko lausotu da aurreko aldiarekin alderatuta. Hala, hizkuntza gaitasuna eta azken alea irakurri duen portzentaiaren arteko harremana lineala bada ere, euskal elebidunen artean %77,8k irakurri du azken alea (2008an baino 5 puntu gutxiago) eta erdaldunen artean %57,8k (2008an baino 38 puntu gehiago). Beraz, aldizkaria hizkuntza gaitasun tipologia guztien artean asko ira-



Aurkezpen egunean ateratako argazkia. Hedabidearen helburu estrategikoak markatzeko horrelako ikerketek duten garrantzia azpimarratu zuten aurkezpenean berbetan jardun zutenek.


INOIZ ...eta kitto! IRAKURRI EDO GAINBEGIRATU DUZU?




IRAKURTZEN ERABILITAKO DENBORA




ALDIZKARIAREN SARBIDEA HIZKUNTZA GAITASUNAREN ARABERA



ALDIZKARIAREN SARBIDEA ADIN-TALDEEN ARABERA



...ETA KITTO!-RI BURUZKO IRITZIA, BALORAZIO OROKORRA



kurtzen dela esan daiteke gaur egun, eta eibartar erdaldun elebazarren artean asko igo da irakurleen kopurua. Beraz, azken hamarkadako bilakera ikusita, erdaldun asko hurbiltzen da aldizkarira, gainetik begiratzeko bada ere.

Gainerako kultur kontsumoaren arabera, ikusten da ...eta kitto!-k sarbide handiagoa duela beselako euskarazko hedabideak ere erabiltzen dituzten pertsonen artean. Adinaren arabera emaitzekin lotuta, internet sarri erabiltzen duten pertsonen artean –gazteak izan ohi direnak– sarbide txikiagoa du aldizkariak gutxi erabiltzen dutenen artean baino. Aldizkariak erabili beharko lukeen batua-euskalki orekaz galdetuta, iritzi desberdinak jasotzen dira. Hala ere, gehienek "eibarrerari eta batuari, biei toki bera" eskaini beharko litzaiekeela uste dute (%39,9k), eta ondoren "eibarrera gehienbat" edo "eibarrera besterik ez" erabili beharko litzatekeela adierazten dutenak datoz (%38,2 bi aukerak batuta);

Oso balorazio ona: 8,2

Aldizkariaren egiten den balorazioa, 0tik 10erako eskala batean, 8,2an kokatzen da batez beste. Hala, igo egin da azken hamar urte hauetan aldizkariaren egiten den balorazioa. Ideia hori berresten du sartu den galdera berri baten erantzunak: hots, aldizkariak daramatzan 30 urteetan hobera egin duela uste dute irakurleen %71,3k. Baloraziorik positiboena "gertutasunak" jaso du (69,4ko indizea). Jarraian datoz "paperaren kalitatea" (67,1eko indizea) eta "argazkien kalitatea" (64,9). Aldizkariaren datozen atalen inguruan, hobetoen baloratutakoak "aktualitateko albisteak" (74,1eko indizea), "kultura" (69,6) eta "Eibar klisk batean, orri osoko argazkia" (65,4) dira.

...eta kitto!-k eskaintzen dituen zerbitzuen inguruko balorazioa (eskelak, iragarki laburrak eta zorian-agurrak kontuan hartuta) ere oso ona izan da: %58,4k oso ondo baloratzen ditu eta %39,8k ondo. Guztira, %98,2k positiboki baloratu ditu beraz. Aldizkari plurala bezala ikusten da, eta erakundeek diruz lagundu beharreko proiektu moduan.

Etorkizuneko erronkak

...eta kitto!-k interneten dituen edukien inguruan ere galdetu da inkestan. Hasteko, kontuan izan behar da inkestatutako eibartarren laurdenak pasak ez duela inoiz erabili internet (%26,5ek). Inoiz erabili dutenen artean, %22,5ek erabili du inoiz www.etakitto.eus webgunea. Beraz, begibistakoa da webgunean badagoela hobetzeko tartea. Hala ere webgunea inoiz erabili dutenek oso puntuazio altuak eman dizkiete galdetutako elementu guztiei. Gazte elebidunen artean eragitea litzateke beste erronketako bat, eurentzako produktuak bultzatuz eta erabiltzen dituzten sare sozialetan indar handiagoarekin jardunez.

Asian lau hilabete pasa ondoren, Nuria Robleño joan den zapatuan itzuli zen Eibarrera. *"Jet laga dut oraindik"*, esan digu. Indian 'Made in made for' dokumentala grabatzeko aukera izan du, modaren gainkontsumoak Indiako eta Txinako gizartean eta ingurugiroan duen eragina aztertzen duen ikus-entzunezkoa. Txinan, berriz, negozioen munduan trebatu da. Esperientzia asko bizi izan ditu, *"ezberdinak eta gogorrak"*, eta bizitakoaren inguruan hausnartuko du udan.

NURIA ROBLEÑO: "Benetako munduak nola funtzionatzen duen erakutsi nahi izan dugu dokumentalean"

- **Asiako herrialde batetik bestera ibili zarala ikusi dugu. Zertan ibili zara?**

LEINN (Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza) karrera ikasten dihardut eta urtero toki batera joaten gara ikasitakoa garatzeko. Lehenengo urtean Finlandian egon ginen, bigarrenean San Frantziskon eta aurten India eta Txinara joatea egokitu zaigu. Indian bi hilabete egon ginen eta Txinan beste bi.

- **Hirugarren urteko bidaiak hau oso ezberdina izan da aurreko biek alderatuz?**

Oso ezberdina, oso toki gogorretan egon garelako.

- **Indian, adibidez, zer egin duzue?**

Ikasleok enpresa bat sortzen dugu, proiektu bat, eta beste herrialdeetako hainbat agenterekin kontaktuak itxi behar ditugu. Beste kide batek eta biok dokumental bat egin nahi izan dugu eta Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundu digu. Modaren gainkontsumoak Indiako eta Txinako gizarte-

an eta ingurugiroan duen eragina aztertzea zen gure asmoa. Lehenik moda jasangarria lantzen duen jendearekin egon nintzen hemen eta Indian beste aldeaz ezagutu dut. Moda azkarrak (fast fashion) industria aldatu du.

- **Zer ikusi ahal izan duzue?**

India osoa zeharkatu dut (Bangalore, Kerala, Mumbai, Kalkuta...) fabrikak bisitatzen eta oso gauza gogorrak ikusi ditut. Adibidez, 18 urteko neskek bakarrik lan egiten duten algo-
doi fabrika batean langileek ezin



dute bakarrik ezer egin, ezta ogia erostera irten ere, ugazabarekin joan behar dira edonora. Fabrika bizi dira eta soldata familiar ematen diote, eurek ez dute zentimorik ikusten. Gero, aitzak ezkontza adosten die eta lana utzi behar izaten dute, eta euren ordean beste neska bat sartzen da fabrika, kendu eta ipini daitezkeen produktuak izango balira bezala. Horrelako gauza asko ikusi ditugu, Indian denetarik dagoelako. Tirupurren, adibidez, 2.500 ehungintza fabrika daude eta han egiten

da Inditex enpresaren markentzako erropa, besteak beste.

- **Fabriketan sartzeko aukera izan zenuten?**

Ezin ginen fabriketan sartu, baina barruan gertatzen dena grabatzen saiatu ginen. Ikasleak ginela esaten genien, disimulatzeko.

- **Dokumentala amaitu ahal izan zenuten?**

Bai, eta dagoeneko Donostian aurkeztu dugu. Benetako munduak nola funtzionatzen duen erakutsi nahi izan dugu. Modako produktuak erostean prezio batzuk eskatzen ditugulako gertatzen da hori. Produktu batek 10 euro beharrean 5 euro balio badu, hobeto iruditzen zaigu. Baina produktu horrek 5 edo 2 euro balio izateko, jendea oso egoera kaskarrean bizi behar da. Gainera, kontsumo-mota horrek ingurugiroari kalte egiten dio, ez da jasangarria. Tirupurreko erreka bat, adibidez, guztiz koloreztatuta dago inguruko fabrikek isurtzen duten tindagaien ondorioz.



**- Txinan lan bera egin zenu-
ten? Hango fabriketan egon
zineten?**

Ez, Txinan dokumentala ed-
tatu behar izan nuen. Nire lan-
kidea ni baino bi hilabete lehe-
nago joan zen eta Indian nen-
goen bitartean bera Txinan ze-
goen. Orduan, Txinan elkartu
ginen gero. Txinan ez genuen
fabrikarik ikusteko aukerarik
izan, Gobernu oso zorrotza
delako, baina nire kideak Ban-
gladeshera joateko aukera izan
zuen eta Rana Plaza eraikina-
ren (lau fabrika eta 5.000 lan-
gile zituen barruan) erortzeari
buruz berba egin zuen bikti-
men familiar batzuekin.

**- Dokumentalaz gain, beste
zerbait egiteko aukera izan
zenuen?**

Txinara joan aurretik Kalku-
tan astebeteko boluntarior-
tza egin genuen Teresa Kalkuta-
koaren etxeetan eta senarrek
egindako azido erasoak jasan
duten emakumeen etxean



egotea egokitu zitzaidan. Mai-
tasuna ematen eta laguntzen
saiatu nintzen. Hori goizetan
izaten zen, arratsaldeetan ume
desgaituekin egoten nintzela-
ko. Izan ere, familiek baztertu
egiten dituzte desgaitasuna
duten umeak.

**- Barrenak ukitu dizkizu In-
diako bidaiak?**

Azken egunean manifestu
bat idatzi genuen Indian ikusi-
takoarekin ikasitakoa eta gure
bizitzan aldatu nahi duguna
azaltzeko. Hangoa ikusi ondo-
ren familia, lagunak, bizi zaren
tokia... beste modu batean ba-
loratzen dituzu. Bi hilabete
egon naiz Indian, baina bane-
kien hona itzuliko nintzela.
Hango jendea, ordea, han bizi
behar da.

**- Alde handia ikusi zenuen
India eta Txinaren artean?**

India iragana da eta Txina
etorkizuna. Shanghai, Guang-
zhou, Pekin eta Shenzhenen egon
nintzen, oso hiri modernoetan.
Jende guztia telefono mugiko-
rrekin ikusten duzu eta inork
ez du diru fisikoa erabiltzen. Es-
kaleek, adibidez, QR kode bat
dute limosnak jasotzeko. Txina
asko gustatu zait, baina Indian
jendea laguntzeko prest egoten
da beti eta Txinan ez da horrela.
Txinatar gehienek erlijioa budis-
moa da, nahiko indibiduala de-
na; Indian, ordea, hinduismoa
da nagusi eta kolektiboak gar-
rantzia handia du erlijio horre-
tan. Tontakeria dela dirudi, baina
eragina duela uste dut.

**- Zer ikasi edo ekarri duzu
Txinatik?**

Negozio kontuak. Batetik,
gure proiektu baterako espor-



tazio gaiak landu genituen; eta
bestetik, Txinako LGBTI kolek-
tiboaren dokumentala egin ge-
nuen, oso ezkutuan dagoelako.

**- Zentzu horretan ez da etor-
kizuneko herrialdea?**

Ez. Taiwan izan da sexu be-
reko pertsonen arteko ezkon-
tzak legeztatu dituen Asiako le-
hen herrialdea eta gure ekipo-
ko batzuk hara joan ziren berta-
ko egoera zuzenean ikusteko.

**- Zer moduzkoak dira txina-
tarrak negozio kontuetan?**

Guanxi delakoak garrantzi
handia du eurentzat.

- Zer da Guanxia?

Negozioak egiteko edo erla-
zio komertziala dagoen kasue-

tan sortzen den konfiantza edo
sentimendua. Dinamika bat jar-
raitu behar da negozioak egi-
teko eta, negozioez berba egin
aurretik, hainbat ekintza egiten
dira (elkarrekin bazkaldu, kara-
okean abestu...). Guanxi gabe
ez dago negozioirik. Asian gar-
rantzia handia ematen diete
harreman estuei, baina harre-
mana apurtzen bada, akabo,
inoiz ez da berreskuratzen.

**- Lau hilabete hauetan jaso-
takoa gainditu duzu?**

Indian bizitakoaren inguruan
hausnartzeko denbora izan
nuen, baina oraindik patxadaz
pentsatu behar dut bidai oso-
an gertatu denaren inguruan.

Iñaki Galparsoro Garcia

6. Urteurrena
(2013-VI-5)

“Gure bihotzetan jarraitzen duzu”

ZURE FAMILIA





Iñaki Ugarteburu

Gizartea aldatu den bezala, kirola ere aldatu da. Indarrean dagoen kirol legea orain dela 20 urtekoa izanik, argi dago legea berritu beharra dagoela

Kirolaren Euskal Legea

Indarrean dagoen kirol legea 1998. urtekoa da; hogeit hamar urte luze pasatu dira onartu zenetik. Nik balorazioa egiterakoan esango nuke lege ona dela, izan dela, baina berrikusteko premia duela.

Ona izan da balio izan duelako EAEn kirola izugarri garatzeko, kirol eredu propioa izateko, eskola-kirola sustatzeko edota goi mailako kirolari askok garaipen ugari lortzeko.

Hau horrela izanda, 2019. urteko kirol sistema dezente aldatu da hogeit hamar urtetan. Kirol praktika berriak iritsi zaizkigu (parkourra, crossfita...), kirol lehiaketen panorama ere asko aldatu da (mendi-maratoiak, extrem probak, milaka lagun elkartzen dituzten saiok...), kirola sustatzeko agente berriak agertu dira (enpresak, liga profesionalak...), teknologia berriek abantaila handiak ekarri dituzte ekitaldiak edo emaitzak ikusteko edo bidaltzeko orduan, baina arazoak ere ekarri dituzte (grabazioak aldageletan...), kirol apustuak. Gizartea aldatu den bezala kirola ere aldatu da.

Legea berritu beharra dagoela diot berriz ere. Baina zein/zein-

tzuk izan behar dira lege berriaren erronka nagusiak? Nik batzuk botako ditut:

- Kirolaren edo jarduera fisikoaren unibertsalizazioarekin jarraitu. Herritar guztiok izan behar dugu aukera, salbuespenik gabe, oinarrizko jarduera fisikoak praktikatzeko (ibili, igerian egin, gimnasia egin...).
- Lehenengo helburu horri aurre egiteko, oso lagungarria izango litzateke Euskadiko kirol txartela garatzea, herri guztietako kirol instalazio publikoetan sartu ahal izateko.
- Eskola kirola indartzeko, Hezkuntza Saila inplikatzeko eta protagonistak bihurtzeko, EAE osoan kalitatezko eskaintza izateko, haur eta gazteek kirolaz gozatu dezaten.
- Osasun Sailak erabateko apustua egitea jarduera fisikoaren eta kirolaren alde, osasun eta kirol eragileen arteko etengabeko elkarlana bermatuz. Beste hainbat ere aipatu daitezke, baina horiek dira nire ustez lehentasunak.



Asier Azkue

Politikaren espektakuluan inplikazio historiko, politiko eta sozialak dituzten hitz ugari guztiz galdu dute euren egiazko esanahia eta debalatu egin dira

Faxistak

Politikan, hitzek esanahi zehatz bat izatez aparte, diskurtsoari kutsu ideologiko konkretu bat ematen diote; hots, posizioan egiten dute. Horrela, batzuek Kataluniako erreferenduma estatu kolpe gisa definitzen badute, beste batzuek faxista deitzen diote arerio politiko orori. Azkenengo honetan gelditu nahiko nuke; izan ere, gaur egun, baldintza guztietako pertsonak eta erakundeek erabiltzen duten errekurtoa da.

Faxismoak, fenomeno historikoa den moduan, inplikazio politiko, sozial eta ekonomiko oso zehatzak ditu; errepresioaz eta probokazio politikoaz askoz haratago doazenak. Egia da historian zehar gertaera asko errepikatu egiten direla; besteak beste, fenomeno horiek sortarazten dituzten baldintzak bere horretan jarraitzen dutelako, baina kontu handiagoko eduki beharko genuke zerbaiti edo norbaiti faxista deitzerakoan. Haserre ezin du hitz baten erabilera okerra justifikatu. Eta, are gutxiago, ez badakigu zer esan nahi duen.

Egungo egoera polarizatuak, aitzitik, ez du asko laguntzen. Maiz entzuten ditut "faxista" eta "fatxa" hitzak aurkaria erasotzeko. Batzuentzat, PSOE eta PP alderdi faxistak dira; besteentzat, berriaz, ERC, Bildu eta CUP komunista, fatxa eta nazionalista nazkagarriak. Dena eta denak dira faxistak. Politikaren espektakulu horretan, inplikazio historiko, politiko eta sozialak dituzten hitz ugari guztiz galdu dute euren egiazko esanahia, hau da, debalatu egin dira.

Debaluazio horri aurre egiteko soluzio asko daude, baina nik garrantzitsuena azpimarratu nahiko nuke: irakurketa. Liburuek ez diote inori minik egiten eta, zorionez, gaur egun eskura ditugu fenomeno historiko eta politikoak aztertzen dituzten milaka liburu. Egungo aldaketan ondorioz, faxismoa eta komunismoaren marmuak berriro ari dira Europako mapa zeharkatzen. Horrek ezinbestekoa egiten du fenomeno horien azterketa eta eztabaida; egoera zehatzaren analisi zehatza, alegia.




Kirola Euskaraz Bizī









Debabarreneko Alternatiben Azoka egingo da hurrengo barixakuan

Eibar eta Ermuko Ernaik antolatuta, datorren barixakuan Debabarreneko Alternatiben Azoka egingo da Eibarko Bizikleta Plazan, arratsaldeko 17:30-etik aurrera (euria egingo balu, udaletxeko arkupeetan). Irati Gabirondo eta Aitor Aizpuru Eibarko Ernaiko kideek azaldutakoaren arabera, "Alternatiben Azoka antolatzeo ideia ez da beste barik sortu, aurrera begira bi edo hiru urterako proiektuaren harira baino. Guk 'Euskal Herrian Bizitzak BIZIARAZI' deitu dugun dinamika horren barruan, gaur egun indarrean dagoen eredu kapitalistak gazteoi prekarietatea (lanordua amaigabeak, soldata kaxkarrak...) besterik ez digula ekartzen pentsatzen dugu askok. Horregatik, azken aldian horren inguruko hausnarketak egin eta egoera salatzeo ekimenak garatu ditugu. Baina salaketa egiteaz haratago, orain alternatibak plazaratzeko ordua ailegatu zaigu. Izan ere, beste aukerarik ez dagoela sinetsarazi nahi izan duguten arren, jakin badakigu beste alternatiba batzuk badaudela,



Irati Gabirondo eta Aitor Aizpuru Ernaiko kideek gaur egun nagusi den eredu kapitalistarentzat alternatibak badaudela diote.

bestelako eredu politiko, sozial eta ekonomikoak".

Gauzak horrela, "Debabarrenean prekarietatera kondentzen gaituen krisi sistemiko hau iraultzearekin batera alternatibak eraiki nahi ditugulako" egingo da datorren asteo azoka. Aurreratu dugutenez, Eibarko Bizikleta Plazan postu ezberdinak ipiniko dituzte, "barixakua izanda, modu arin batean gazteei zein gainontzeko

herritarrei alternatiba horien berri emateko". Ernaiko kideak ez ezik, Eibarko Gazte Mugimenduko eragile ezberdinak bilduko dira: "Ermuko Nü Shu gazte feministen taldekoek ekonomia eredu feminista aurkeztuko dute, Jaixak Herrixak Herrixandakok jaiak antolatzeo eredu propioa, Topatu Euskal Herriko proiektu komunikatiboa ezagutzera emango dute, hainbat autonomok ere har-

tuko dute parte, bakoitzak bere proiektuarekin eta EH Beer Koop hemengo garagardoarekin dastaketa egingo dugu, besteak beste".

Azokaren inguruan solasaldiren bat egitea ere aurreikusitako dute: "Ekonomia sozial eraldatzaileen inguruko solasaldiren bat egingo dugu, horrelako eredu alternatiboak babesten dituzten OlatuKoop eta Koop-Fabrika moduko inguruan berba egiteko".

Ekainaren 15ean Gasteizen

"Bizitzak Bizarazi. Prekarietateari aurre egiteko martxan!" goiburuarri jarraituta, Eibarren bezala beste herri batzuetan ere eskualde mailako hainbat jarduerak egingo dituzte hilaren 13 eta 14an eta ekainaren 15ean, berriz, Gasteizen egun osorako egitarauarekin biribilduko dituzte ekimenak. Gazteen berbetan, "alternatiben eraikuntzaz bizitzak erdigunean jarri eta kapitalari planto egiteko borrokara batzeko gonbita egiten diogu jende guztiari, hau hasiera besterik ez da!".

10 EGUNKIA
ESKAINITZA EZIN HOBEAK ekainaren 6tik 17ra



Hibridoak barne.



The Power to Surprise

KIA 15 NADAL
URTE ELKARREKIN

NAIA CAR

Apalategi auzoa, 1. Eibar
Tel.: 943 70 70 33

www.naiacar.com

Kontsultatu promozioaren baldintzak eta ezaugarriak www.kia.com webgunean.
Penintsulako, Balearretako, Ceutako eta Melillako kontzesionarioaren sarean du balioa eskaintza honek.

Iparraldeko irteerak paso emango dio biharko Eibarko Itzuliari

Klub Deportiboko mendi taldekoek antolatutako Arrosa eta Irulegiren arteko irtenaldian 25 lagun izan ziren parte hartzen. Iparraldera egindako irteera horretan Larla eta Jara menditik pasatu ziren, *"paisaia bikainez inguratuta eta bero handia jasanik"*. Guztira 19 kilometro baino gehiago egin zituzten, 1.463 metroko desnibelarekin.

Bihar, berriz, Eibarko mendi Itzuliaren 21. edizioa egingo dute. 07:00etan abiatuko da Depor aurretik eta 33 kilometro eta erdiko ibilbide zirkularra osatuko dute, Eibarko gailur guztietatik pasatuta, Klub Deportibora itzuli aurretik. Bestalde, Finalista Eguna aprobetxatuta, mendizaleek hildakoen aldeko lore-eskaintza egingo dute Parlamentuan.



Iparraldera egindako txangoan parte hartu zuten batzuk Larla mendigainean atseden hartzen. **Periko Iriondo**

Rollerski erakusketa egingo dute bihar goizean Bizikleta Plazan

Eibarko Klub Deportiboko Eski Batzordeak rollerski erakusketa eskainiko du bihar goizean Eibarko Bizikleta Plazan. Ekitaldia goizeko 11:00etan hasiko da eta bi orduko iraupena izango du, 13:00etan amaitzeko. Bonés Skiroll eta Eibarko Udalaren laguntzaz egingo den jardunaldian materiala eta teknika klasiko eta skating-a erakutsiko dira, bide batez elurrik ez dagoenean ere eskia egin daitekeela ikusi eta probatzeko.



Hiru pilota partiduko jaialdia izango da gaur Astelenan

Arratsaldeko 19:00etatik aurrera Pilota Eskolako arteko partiduarekin hasiko da Klub Deportiboko batzordekoek antolatutako gaurko jaialdia Astelena frontoian. Norgehiagoka horretan Larrarte-Zabala eta Jauregi-Usobiaga bikoteek neurtuko dituzte indarrak. Jarraian federatuen mailako bi partidu jokatu dira, biak ere kadeteen mailakoak eta eskuz banaka: 2. mailako finalerdiko neurketan Camina eibartarrak Andoaingo Gazteleku klubeko Lanzeta izango du aurkari; eta 1. mailako final-laurdenetako kanporaketan Deporrek Azkargortak Tolosako Elolaren kontra jokatu du. Jaialdi polita, beraz, Deporrek pilotariak ikusteko aukera eskainiko diguna gaurkoan.

Sanjuanetako txori-kantarien txapelketa jokatu da etzi Arraten



Eibarko Hiria txori-kantarien XX. edizioa izango da jokoan domekan Arrateko zelaietan. JJJ Memorialaren izenean jokatu den txapelketa goizeko 09:00etan abiatuko da eta arratsaldeko 14:30ak arte iraungo du, hainbat mailatan banatutako lehiaketan. Euria egingo balu, txapelketa Altxubarreneko frontoian jokatuko litzateke.



Eibar FT-k emakumezko beteren taldea estreinatuko du asteburuan

Horretarako, lehenengo aldiz emakumezkoen parte-hartzea izango duen Donosti Master Cup torneoa aukeratu dute. 35 urtetik gorako jokalariekin jokatu den torneoak seigarren edizio honetan emakumezkoen maila izango du. SD Eibar Fundazioaren ekimenak gizonetakoekin jokatu duen Ainhoa Alonso izan du sustatzaile nagusia; horrez gain, Ana Rodriguezek zuzentzen dituen

jokalaria ohiek aurreko barixakuan izan zuten lehen entrenamendusaioa torneo hori prestatzeko. Eibarrek batera, Oiartzun, Intxaudi eta Azarnak euskal taldeek eta Madrilgo Olympiak hartuko dute parte Donosti Master Cup-ean. Donostian eta inguruetan jokatu diren kanporaketak gaur arratsaldean abiatuko dira, bihar jarraitu eta domeka arratsaldean amaitzeko.

Urbat-Urkoironik Euskal Herriko waterpolo Ligako txapelkun

Davide Cerchik prestatzen duen Urbat-Urkoironik finalerako serieari buelta eman eta, Leioan 3-4 irabazi ondoren, Euskal Herriko waterpolo txapelketa eskuratu zuen aurreko barixakuan Askartzaren aurka. Eibarko taldeak denboraldia biribildu du emaitza horrekin, urtarrilean Euskal Herriko Kopa irabazi baitzuen. Ligako final honetan 13-11 galdu zuen Leioan lehenengo partiduan, bigarrena penaltietan irabazi zuen Orbean partidua berdinketarekin amaitu ostean eta, azken honetan, gai izan da kanpoan nagusitzeko. Denboraldi bikaina egin dute Urbat-



Liga irabazteaz gain, denboraldi honetan Urbat-Urkoironik Kopa torneo ere irabazi zuen urtarrilean.

Urkoironikoko bi talde nagusiek. Emakumezkoenak ere bai: erabakitze azken partiduan Askartzari 3-7 irabazita, Euskal Herriko ligako hirugarren postuaz jabetu zirelako.

Aurreko ez gain, gizonezko senior taldea Algecirasen izan zen 2. Mailara igotzeko faseari amaiera emateko eta, azken partiduan penaltietan galdu ondoren, txapelketa horretan bigarren geratu dira. Bai gaur eta baita hurrengo barixakuan ere ate irekiko jardunaldiak izango dira Orbea igerilekuan arratsaldeko 19:15ean. "Interesatuta dauden guztiak etorri daitezke probatzera" diote Urbatekoek.

Escuderia Eibarko Iñaki Narbaizak eta Unai Etxeberriak bigarren garaipena lortu dute Sportech Kopan

Aurreko zapatuan Rally Goilurra-en lehenengo edizioan nagusitu zen Eibarko taldea, Lazkao, Beasain eta Azkoitia inguruan jokaturako rally berri horretako erlojupekoen ondoren. Bigarren sailkatuarekin izandako lehia estuaren amaieran Iñaki Narbaizak eta Unai Etxeberriak 10 segundoko tartea atera zien aurkariei, horrela lidergoa bermatzeko urte osoan zehar jarraituko duen Sportech Kopan (Kopako lehenengo proba ere bereganatu zuten eibartarrek). Igor Izagirre/Angel Ruiz bikotea izan zen bigarren eta hirugarrenak Arkaitz Zubimendi/Aritz Elgarresta izan dira. Hurrengo proba Durangaldeko asfaltoan izango dute ekainaren 29an, Bizkaiko Balkoia Rallyan.




Deporreko atleta gazteenak nagusi Gipuzkoako taldekako txapelketan

Aurreko domekan Tolosan jokaturako Gipuzkoako taldekako alebin mailako txapelketan Klub Deportiboko atletak, Iturburu Ikastola ordezkatzeko, Gipuzkoako txapela lortu zuten; horrez gain, erreleboetan mutilen taldea onena izan zen eta neskena bigarren sailkatu zen. Federatuen mailan, bestalde, aurreko barixakuan antolatutako probetan Nora Zabalak, 5,51 metroko jauzi batekin, Espainiako txapelketara joateko gutxieneko marka lortu zuen luzera jauzian.

Debarrenan jardundako D. Cima Giroan garaile

2013an Juanjo Sebastianek zuzentzen zuen Debarrenako taldeko txirrindularia izan zen italiarrak aurtengo Giroaren 18. etapa irabazi zuen, 170 kilometro ihesean egin eta tropela gainean zuela esprinterrei aurrea hartuta. Italiarra ez da lehenengo horrelako garaipenik lortzen duena profesionalen; aurretik ere Eibarko Klub Deportiboko taldean jardundako hainbat txirrindularik euren maila erakutsi dute halako probetan, azkena aurtengo Euskal Herriko Itzulia bereganatu zuen Ion Izagirre.



Eibar Igerixan taldekoek lehiaketaz lehiaketa dihardute

Batzuetan, gainera, hiru konpetizioei egin diete aurre egun berean. Horrela, maiatzaren 25ean Santurtzin jokatu ziren XXXVIII. Euskadiko Eskola Kirol Jokotan Gipuzkoako selekzioarekin hartu zuten parte alebin mailako 11 igerilarik. Euren artean Lucia Gabilondok urrezkoa irabazi zuen 200 estiloetan eta zilarrezkoa 100 libreetan, Maddi Maguregik zilarra bereganatu zuen 100 tximeletan, eta Iker Calvok brontzekoa irabazi zuen 200 bizkarrean eta 400 estiloetan. Calvok, gainera, Tarragonan uztailaren 18tik 21era jokatu den Espainiako txapelketarako marka lortu zuen 200 bizkarrean. Egun berean, goizez, Irungo XXVII. San Marzial Saria jokatu zen



Eibar Igerixan-ek ordezkaritza zabalaz izan zuten Santurtzin.

“A Zirkuitoaren” barruan eta hor Eibar Igerixaneko hamar ordezkari izan ziren: absolutu mailako bost, junior bakarra eta infantil mailako lau. Ia ordezkari guztiek hobetu zituzten euren markak eta, horrez gain, Jon Osa nagusi izan zen 100 bizkarrean,

58:30 denborarekin. Arratsaldean, bestalde, Zarautz Saria jokatu zen Gipuzkoako Sarien barruko “B Zirkuitoan”. Infantil mailako Eibarko zortzi igerilari izan ziren parte hartzen eta Asier Gomezek 400 metro libreak irabazi zituen, 4:57:46 denborarekin.

“Uda 2019 guztiontzat” egitarauan izena eman daiteke oraindik

3 urtetik 12ra artekoentzat “Haurrentzako Igeriketa”, 12tik 16ra artekoentzat “Gazteentzako Multiekintza” eta 16 urtetik gorakoentzat “Helduentzako Ur-Fit” programetan izena emateko epea zabalik dago oraindik. Lehen bi kasuetan hilabete osorako eta bi asterako eman daiteke izena, eta hirugarrenean hilabete osorako. Haurrentzako igeriketa goizez eta arratsaldez eskainiko da, gazteentzako multiekintza 11:30etik 13:00etara eta, azkenik, helduentzako Ur-Fit edozein ordu egitan egin ahal izango da. Bestalde, astelehenean iraileko umeen igeriketa ikastaroentzako aurre izen-ematea zabaldu zen eta hilaren 22ra arte iraungo du. Ekainaren 26an zozketa egingo da (17:30ean) eta hurrengo egunean, 27an, emaitzak eskainiko dira, ordu berean. Eta uztailaren 3an izen-ematea zabalduko da.



Pello Osoro Guadalajarako triatloiko podiumean

Eibartarrak distantzia erdi eta luzeko triatloiko Espainiako Kopako bigarren lasterketa lehiatu zuen aurreko zapatuan Guadalajaran eta brontzeko dominarekin itzuli zen etxera. Igerian eta bizikleta gainean maila handia erakutsi ondoren, eibartarrak pixka bat behera egin zuen antxintxiketa saioan bero handiaren ondorioz. Osorok hilabete betea du aurretik; izan ere, asteburuan Zarauzko Triatloia lehiatuko du, ondoren Bizkaiko Triatloian hartuko du parte eta, azkenik, distantzia luzeko Espainiako Triatloi Txapelketan izango da Salamancan.

Gipuzkoako Kopa Eibar FT-ko infantil mailako neskentzako

Aurreko zapatuan Eibar FT-ko infantil mailako nesken taldeak Gipuzkoako Kopa bereganatu zuen, Zubietan jokatuako partiduan Goierri 2-0 irabazi ondoren. Ondo me-rezitako saria, denboraldi osoan egindako lanaren fruitu.



Lau eibartarrek amaitu zuten Zegama-Aizkorri mendi-maratoia

Eguzkipean eta ibilbidea bete zuten milaka zaletuen txalo artean, 403 korrikalarik amaitu zuten aurreko domekan 18. Zegama-Aizkorri mendi maratoia. Tartean lau eibartar zeuden: Ibon Vega, Mikel Lizarralde, Jose Maria Bernedo eta Ander Barrene-
txea. Kilian Jornet kataluniarra (3:52:47) eta Eli Anne Dvergsdal (4:36:05) izan ziren azkarrenak gizonezkoetan eta emakumezko-
etan, hurrenez hurren. Eibartarrak honako postuetan sailkatu zi-
ren: 56. postuan Barrene-
txea (4:46:45), 68.ean Bernedo (4:50:15),
210.ean Vega (5:51:12) eta 329.ean Lizarralde (7:01:00).



Mikel Zabala eskubaloia jokalaria Espainiako selekzioarekin

Azken denboraldian Bidasoarekin Asobal Ligako bigarren pos-
tua eskuratu duen hegaleko eibartarrak Vigon uztailearen 16tik
27ra jokatu den junior mailako Mundialean hartuko du parte Es-
painiako selekzioarekin. Denboraldi bikaina egin du Eibar Eskuba-
loiko jokalaria-ohiak eta, ligan bigarren sailkatzeaz gain, Asobal Ko-
pako azpitxapeldun izan da eta Europan jokatzeko txartela lortu du
Bidasoarekin Asobalen jokatu duen lehenengo denboraldian.

Foball-zaletuen KirolBet Saria Eibarren geratu da

Ermuko eta Eibarko liga irabazleen artean jokatzeko den Saria oraingoan azken urteetan baino emaitza argiagoa erakutsi zuen. Azkena Adahi Eibarko txapel-
dunak 6-2 irabazi zion Duran Duran Ermukoari nor-
gehigokan nagusitasun handia erakutsi ondoren. Ke-
pa Eibarko ligako goleatzaile nagusiak bere dohaiak
erakutsi zituen final horretan ere, hiru golekin, eta An-
der, Iker eta Manzano izan ziren beste goleatzaileak ei-
bartarren aldetik. Ermuko golak Stivenek eta Josek
gauzatu zituzten.

Eibar FT-ko Cucurella hegalekoa, selekziara

Kataluniarra Espainiako selekzioarekin jokatu-
ko duen Eibar FTko lehe-
nengo jokalaria izango
da, ekainaren 16tik 30era
arte jokatu den 21 urte-
tik azpiko Europako txapelketako taldetik deitu
baitute Brahim jokalaria-
ren tokia hartzeko, azken
horrek min hartu duelako. Aurretik ere adin horretako
selekzioan jokatzeko deitu zituzten bai Asier Riesgo
atezaina eta baita David Silva erdilaria, baina aipatu-
ko kasu bi horietan jokalaria lagatukoak ziren.



IV. Gipuzkoa Zurigorria eta Peña Txinberaren 20. urteurrenaren aurrean


Egun handia izango da bihar-
koa Athletic-zaleentzat, goize-
tik hasita probintziakoentzat
batez ere eta, eguna borobiltze-
ko, azken orduetan Peña Txin-
beraren partaideentzat. Eibarko
peñak hartu du bere gain egun
osoko egitaraua antolatzeko ar-
dura eta, goizeko 11:00etan jau-
ritiko duten txupinazotik hasi eta
goiz aldean Mugi Panderoak es-
kainiko duen kontzertuarekin
amaitzeko, ekitaldi asko izango
da herrian, ia atsedetik hartzeko
tarte barik. Egitarau osoa 32.
orrialdean.



Kalamuak bi ordezkari izan zituen Europako jiu-jitsu txapelketan

Bukarest Errumaniako hiriburuan jokatu-
tako se-
nior mailako jiu-jitsu Europako txapelketan Jonatan
Garcia eta Jonatan Terronek hartu zuten parte
Kalamua ordezkatzeko. Lehenengoa zazpigarren
sailkatu zen, eta emaitza horrekin aukerak ditu
Abu Dabin jokatu den Mundialean parte hartze-
ko. Terronek zorte gutxiago izan zuen. Bata zein
bestea Espainiako selekzioko kideak dira.





AMAIA ARIZMENDIARRIETA. "Zerura begira".



XABIER ARRIETA
(Sanjuanetako pegatina
lehiaketako irabazlea)

- *Zenbat aldiz irabazi duzu Sanjuanetako pegatina lehiaketa?*

Uste dut aurtengoa seigarren aldia izan dela.

- *Xabier Arrieta Saria deitu beharko diogu.*

(Barreak) Ez adarrik jo!

- *Noiz izan zen lehenengoa?*

'Stop' seinale bat marraztu nuen eta zera jartzen zuen: 'Edaten hasteko pronto, geratzeko tonto?'. 20 urte inguru nituen.

- *Lehiaketa hau martxan jarri zen lehen urtea izan zen?*

Ez, aurretik egin izan zen. Lagun batek irabazi zuen eta berak egindakoa asko gustatu zitzaidanez, animatu egin nintzen. Pegatina umoretsuak egitea, hitz-jokoak... Lehiaketaren ideia gustatzen zait eta beti egoten naiz horrelakoak pentsatzen.

- *Lehen aldiz irabazi zenuen momentutik beti hartu izan duzu parte?*

Ez. Umea eduki genuenean, batez ere, albo batera utzi nuen pegatina lehiaketarena. Orain, bigarren umea bidean zegoela, jaio aurretik pegatina egiteko aprobetxatu dut. Eta tira, irabaztea lortu dut. Badakit diru-saria zertan gastatu, pixoihaletan.

- *Zaila izaten da marrazkia eta aholkua duen mezu umoretsua uztartzea?*

Niretzat zailena marrazkia egitea da. Ez naiz diseinatzailea, ingeniari mekanikoa naiz, eta ahal dudan moduan saiatzen naiz. Esaldia, bestetik, errazago etortzen zait burura. Tontoke-

Xabier Arrieta Aldazabal izan da aurtengo Sanjuanetan alkohol larregi ez edateko mezua umore kutsuarekin zabaltzeko pegatina irabazlea. Ez da lehenengo aldia, inork ez baitu berak beste aldiz irabazi sari hau. "Garagardua zein ardua, ez edan mordua" da berak sortutako pegatinaren goiburua. Sanjuanetan banatuko dituzte pegatinak, paparrean eramateaz gain, mezuari kasu egiteko helburuarekin.

"Tontokeriak pentsatzen ditut eta beti okurritzen zait zerbait pegatinak egiteko"

riak pentsatzen egoten naiz eta beti okurritzen zait zerbait. Askotan gertatzen zait esaldia edukita ere ez dudala oso argi edukitzen nola irudikatu.

- *Nola lortzen duzu inspirazioa?*

Interneten gauzak begiratzen ditut, ideiak hartzeko. Aurtengo pegatinan hainbat baso-azpiko agertzen dira eta antzeko gauza bat ikusi nuen nonbaiten. Ideia ez da nirea. Botilak edo edalontziak irudikatzen ditugu beti pegatina hauetan eta beste puntu batetik landu nahi izan nuen.

- *Arlo teknikoari dagokionez, nola marrazten duzu?*

Illustrator programa erabiltzen dut, baina afizionatu mailan. Tutorialak ikusten ditut gauzak ikasteko eta ahal dudana egiten dut.

- *Ahal duzuna egiten duzu, baina dagoeneko sei aldiz irabazi duzu lehiaketa hau. Neurria hartu diozu?*

Bai, tira. Hasieran eskuz egiten nituen marrazkiak, gero eskaneatu egiten nituen eta azkenik ordenagailuan irudia bete. Hala nolako tresnak erabiltzen nituen.

- *Polita da Sanjuanetan jendeak zuk egindako pegatina soinean eramatea?*

Bai, baina koadrilakoek adarra jotzen didate pegatina eramango ez dutela esanez. Bestetik, koadrilako lagun batek ere lehiaketa irabazi zuen. "Zuk irabazi baduzu, ez da hain zaila izango", esan zidan (barreak).

ALFONSO RODRIGUEZ FERNANDEZ **II. URTEURRENA (2017-VI-10)**



"Lagun on bat aurkitzea oso zaila da, galtzea hainbat zailagoa, eta ahaztea ezinezkoa"

ZURE LAGUNAK



Sanjuanetako egitarauak ekaina osorako 80 jardueratik gora biltzen ditu

Eguazten goizean aurkeztu zuten udaletxean aurtengo San Juan jaietarako egitaraua Miguel de los Toyos jarduneko alkateak, Patxi Lejardi Kultura eta Euskara jarduneko zinegotziak eta Jose Luis Gonzalez 'Poxpolo' Kultura teknikariak. Azaldutakoaren arabera, aurtengo jaien inguruan 80 jarduera baino gehiago antolatu dira eta, Udalak ez ezik, egitaraua osatzen duten ekitaldiak prestatzeko herriko 37 elkarte eta taldek jardun dute lanean. San Juan jaiak berez ekainaren 23an ofizialki hasiko badira ere, aurretik, ekaina osoan zehar, beste hainbat ekitaldi eskainiko dira. Kontzertu nagusiak ekainaren 15ean (Lord Witch eta Mago de Oz) eta 22an (Nogen eta Hesiak) izango dira eta, horrez gain, kale antzerkia eta animazioa, danborradak, musika-ekitaldiak, suzko erroberak eta herriko taldeekin batera antolatutako

beste jarduera asko egingo dira. Horiek guztiak antolatzeko Udalak 255.000 euro inguruko aurrekontua erabili du.

San Juan bezperan (ekainaren 23an), urtero lez, ongietorria emango zaie Lizarrako Dultzaineroei Estaziño kalean, 13:00ean. Eibarko udaleko ordezkariekin batera, herriko koadrilak eta aurten omenduko dituzten kolektiboak izango dira: Eibarko Arma Probaderoko ordezkariak, Avia Eibar Rugby emakumezkoen taldea, Arrate Filatelia Elkartea, Aitziber Urkiola korrikalaria, Eibarko Koro Gaztea eta Eibarko Unibertsitate Laborala. Kalejira amaitu eta gero, Udaletxeko balkoitik pregoia bota eta, jarraian, 13:30ean botako dute jaiari hasiera emateko txupinazoa.

Lizarrako Dultzaineroei ongietorria emateaz gain, aurtengo egitaraua osatzen dutenen artean hainbat ekimen na-



Jose Luis Gonzalez "Poxpolo" Kultura teknikaria, Miguel de los Toyos alkatea eta Patxi Lejardi Kultura zinegotzia aurkezpenean.

barmendu dituzte: San Juan Sua eta Eibarko Dantza Garai-kide taldearen emanaldia (hilaren 23an, Untzagan, 23:30ean), helduen eta umeen danborradak (hilaren 23an eta 24an), Soka Dantza (hilaren 24an, 23:30ean Untzagan, Kezka Dantza Taldearekin eta Usartza Txistulari Taldearekin) eta suzko erroberak Global Foc SL Caballer (ekainaren 24an) eta Vulcano (ekainaren 25ean) pirotekniekin, besteak beste. Horiekin batera, aipamen berezia egin diete "Ulterior el viaje" kale antzerkiari

(ekainaren 23an, 20:00etan, Tiritantes Circo Teatro konpainiaren eskutik), Lisker taldearen berbenari (ekainaren 23an, 23:00etan, Untzagan) eta Jamaica Show taldearen emanaldiari (ekainaren 24an, 00:15ean, Untzagan), baita Kubako Anacaona taldearen kontzertuari ere (ekainaren 25ean, 22:00etan, Untzagan). Bestalde, umeentzat barrakak Txaltxa Zelaian ipiniko dituzte eta txosnak, azken urteotan bezala, Txaltxa Zelaiko auditorio inguruan (Untzagako dorrearen atzeko aldean).

Poesia eta Musika Gaua Ibarkurutzeko iturrian

Zazpigarrenez antolatu dute Poesia eta Musika Gaua Maite Lorezok zuzentzen duen Itzamna Poesia tailerrekoek. Bihar izango da, 20:00etan Ibarkurutzeko iturrian (euria egingo balu, San Agustin elizan). Eibarko tailerreko kideekin batera, bes-



Araceli Bonok parte hartuko du biharkoan ere.

te herri batzuetatik etorriko diren hainbat lagunek jardungo dute poesiak errezitatzen, 32 lagun guztira. Poesien gaia librea da eta lagun bakoitzak gehienez hiru minutuko tartea izango du. Alberto Luis Egiak pianoarekin lagunduko die eta, horrez gain, poesiekin tartekatuta hainbat kantu eskainiko dituzte Sostoa abesbatzako kideek eta Juan Bautista Gisasola koruko hurrek.



Martitzenean banatuko dituzte Argazki Rallyko sariak

Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldekoen eskutik maiatzaren 12an egin zen rallyko irabazleek izenak eguaztenean eman zituzten ezagutzera. Koloretan, lehen saria Jesus M^a Ribera Otegi bilbotarrak eskuratu du, bigarrena Imanol Salegi Urbieta zestoarrak eta hirugarrena Omar Igual Marcos donostiarrak. Sari soziala Fernando Retolaza eibartarrari eman diote eta gazte mailako saria, berriz, Maialen Barrutia Zabalari. Eta zuri-beltzeko modalitatean, hiru sariak Eibarren geratu dira: lehenak Barne Elejalde Garitagoitiak irabazi du, bigarrena Fernando Retolaza Loizik eta hirugarrena Jose Luis Irigoien Martinezek. Sari banaketa ekitaldia martitzenean egingo da, 20:00etan Klub Deportiboan.



Puntu eta joskintza lanen erakusketa zabaldu dute Untzagan

Eguaztenaz geroztik ikus daiteke Untzagako jubilatuen etxean bertako taldeak ikasturtean egin dituen puntu eta joskintza lanen erakusketa. Ikusi nahi duenak ekainaren 13ra arte izango du aukera, astelehenetik barixakura bitartean 19:30etik 20:30era eta zapatu eta domeketan, berriz, 12:00etatik 14:00etara.



Kezkarekin euskal dantzak ikasteko matrikulazioa

Ekainaren 17an zabalduko dute Kezka Dantza Taldean euskal dantzak ikasteko 2019-2020 ikasturteko matrikulazioa. Ikasle berriek (6 urtetik gorakoek) Portaleko 3. solairuan eman ahal izango dute izena aipatutako egunean, 19:00etatik 20:00etara. Informazio gehiago nahi izanez gero, kezka@dantzan.com helbidera idatzi daiteke.



"Novios" antzezlan

Gaur arratsaldean, 19:00etan, "Novios (una comedia nupcial)" antzezlan eskainiko dute La Red Teatro taldeko Juanma Cano eta Maite Lorenzo aktoreek Antxon gozotegian.

Sanjuanetako marmitako lehiaketa

Ekainaren 25ean, 11:30ean Untzagan hasiko den San Juan XXVI. marmitako lehiaketarako deialdia egin dute antolatzaileek. Izena emateko epea ekainaren 18ra arte egongo da zabalik: interneten, eibar.eus helbidean; telefonoz, 010 edo 943708400 zenbakietara deituta; edo, bestela, Pegoran zuzenean egin daiteke izen-ematea. Gehienez 25 bikote onartuko dituzte.



Errealitate lesbikoen inguruko tailerra

Ekainaren 28a Lesbiana, Gay, Transexual, Bisexual eta Intersexualen Askapenerako Nazioarteko Eguna dela eta, horren harira ekainaren 14an (barixakuan) "Errealitate lesbikoen film laburren tailerra" azalduko dute Gehituk eta Mugen Gaintik elkarteek, 18:00etan Portalean. Horrekin batera, tailer horretan sortutako bi film labur, "Ondas Mareadas" eta "Hilabetean behin?" emango dituzte. Jarduera bigarren filmaren egilea den Raquel Garciak gidatuko du.



Pagatxaren zine-foruma

Gaur 19:00etan "La chica danesa" (Tom Hooper) filmaren inguruko zine-foruma egingo da Portalean (areto nagusian). Izaskun Rodriguez Elkoro gidatuko du saioa. Eta astelehenean, berriz, 18:30etik 20:00etara, Mariana Pinedari buruzko bideo-foruma egingo da Portalean (ikastaro-gelan), "Emakumeen istorioak" egitasmoaren barruan. Dinamizatzailea Patricia Perex izango da. Pagatxa elkarteak antolatuta egingo dira biak eta jarduera doakoak eta irekiak dira.



“Eibarren euskaraz” Telegram kanala sortu du AKEBAIk

Eibarren AKEBAI plataformak, herriko hainbat eragilerekin elkarlanean, “Eibarren euskaraz” Telegram kanala zabaldu du, helburu oso argi batekin: *“Gure herriaren euskeraz antolatzen diren ekitaldien berri izan nahi baduzu, egin zaitez harpidedun. Oso eroso da. Telegram aplikazioa instalatu, kanal berrira harpidetu, eta mugikorrean jasoko duzu informazioa (ordenagailuan ere bai, nahi izanez gero)”*. Argitu dutenez, Eibarren euskeraz edota euskeraren inguruan antolatzen diren eki-

taldien inguruko informazioa zabalduko da bakarrik eta talde eragileetako kudeatzailerik egingo dute hori: *“Harpidedunek, horrela, informazio zehatza eta zuzena izango duzue. Antolatzaileek informazioa zabaldu, eta harpidedunek jaso; hori da kanalaren helburua. Ez dago elkarrizketan aritzeko aukerarik”*. Kanalera nola harpidetu azaltzen duen bideoa ere prestatu dute. Ikusteko, Youtuben Eibarren Akebaik duen kanalera sartu eta “Eibarren euskaraz” izenburuko zabaldu.

Hilaren 18ra arte ikus daitezke Dibujoko eta Zeramika eskoletako ikasleen lanak

Aurreko asteko egunean zabaldu zuten Dibujoko eta Zeramika udal eskoletako ikasleen ikasturte amaierako erakusketa Portalean. Kurtso honetan zehar eskolako ikasleek egindako artelaneekin prestatu duten erakusketa Iratxe Unanue eta Leire Kareaga Dibujoko Eskolako irakasleek zuzendutako 115 ikaslearen lanak, 300 marrazki eta margo inguru ikus daitezke. Irakaslearen berbetan, *“erakusketa parte hartu duten ikaslearen artean 52 ume (8-12 urte bitartekoak) daude eta gainerakoak 13 eta 88 urte bitarteko ikasleak dira”*. Ikasturterako edukiak prestatzeko orduan, ikasle guztiak izaten dituzte kontutan eta, amaitu berri den kurtso honetan, ardatza “natura hila” izan da: *“Hasieran arkata, ikatza eta pastelak erabili dituzte eta, ikasturteak aurrera egin ahala, koloreak sartzen joan dira, horretarako akuarelak, akrilikoak eta olioak erabili. Klasetik kanpo ere ibili dira, koadernoak hartuta naturari zuzenean begiratu eta marrazkiak egiten eta, horrekin animatuta edo, talde txiki batek Bergarako Laboratorium-en zientzia ilustrazioaren inguruko kurtsoa egin zuen”*. Zeramika Eskolan Esther



Galarzarekin klaseak hartu dituzten ikasleek ere hainbat pieza ipini dituzte ikusgai: txikiak egin dituzten figura koloretsuekin batera teknika ezberdinak erabilia sortutako ontziak ere ikus daitezke, baina bereziki ikusgarria geratu da itsasoari eskeinita prestatu duten txokoa. Erakusketa ekainaren 18ra arte zabalduko dute, astelehenetik domekara bitartean, 18:30etik 20:30era.

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

8an: 17:00, 19:45, 22:30

9an: 17:00, 20:00

10ean: 20:30

“Un hombre fiel”

Zuzendaria: Louis Garrel



(2 ARETOAN)

8an: 17:00, 19:45, 22:30

9an: 17:00, 20:00

10ean: 20:30

“La viuda”

Zuzendaria: Anthony Russo



(ANTZOKIAN)

8an: 17:00, 19:45, 22:30

9an: 17:00, 20:00

10ean: 20:30

“John Wick - Parabellum”

Zuzendaria: Chad Stahelski





Erromerixa Eguna bihar SORALUZeko Ezozin

Soraluzeko Euskal Jaien barruan, Deba bailarako dantzazaleek dantza hurreratzeko aukera izango dute. Erromerixa Eguna dantzaren bueltan ardaztutako jaia da. Eguerdian, herriko dantza taldekoen saioekin batera, Baxenafarroatik etorritako Zarena Zarelako taldeak Hariz hari izeneko dantza ikuskizuna eskainiko du, musika eta dantza tradizionalekin batera, dantza garaikidea uztartuz. Egitaraua honakoa da: 10:30ean, hamaiketako Plaza Barrixan; 12:00etan kalejira Ezozirantz, txistulariekin; 12:30ean dantza saioa Urratsekoekin; 13:30ean Zarena Zarelako; 14:45ean bazkaria elizpean; eta 18:00etan dantzaldia Gathubi taldearekin. Tartean, larrain dantza egingo dute.



Debabarreneko gazta-dastaketa MALLABIAN

Debabarreneko herrietan gazta-dastaketak antolatzeko proiektua abiatuko da asteburu honetan eta lehen kata bihar egingo da Mallabian, Kontzeju Zaharrean, 19:30ean. Elgoibarko Mausitxa ardi gazta, Mallabiko Axeleku behi gazta, Mallabiko Onandi ardi gazta, Mallabiko Estakua esnekiak eta Mutrikuko Sagarmina txakolina dastatzeko aukera egongo da. Ekitaldiak ordu eta erdiko iraupena izango du, euskeraz izango da eta doakoa.

eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

hildakoak

- Itxaro Ormaetxea Alberdi. 90 urte. 2019-V-29.
- Victorina Gonzalez Rubio. 88 urte. 2019-V-31.
- Conchi Alberdi Zabaleta. 62 urte. 2019-VI-1.
- Manolo Gonzalez Fernandez. 82 urte. 2019-VI-1.
- Felipe Astarloa Begoña. 88 urte. 2019-VI-2.
- Josefa Gisasola Gisasola. 92 urte. 2019-VI-3.
- Hortensia Cid Martinez. 86 urte. 2019-VI-4.

jaiotakoak

- Malen Etxaluze Ros. 2019-V-24.
- Aimar Alcantara Madariaga. 2019-V-28.
- Xabier Arostegi Azkarate. 2019-V-28.
- Eneko Arregi Manson. 2019-V-29.

farmaziak

- Barixakua 7
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- Zapatua 8
EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)
- Domeka 9
EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)
- Astelehena 10
EGUNEZ **Iraundegi** (Calbeton, 19)
- Martitzena 11
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- Eguaztena 12
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- Eguena 13
EGUNEZ **Zulueta** (San Agustin, 5)
- Barixakua 14
EGUNEZ **Morgado** (San Agustin, 3)

GAUEZ BETI - 2019AN-
Zulueta (San Agustin, 5)

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB.....943 20 38 43
- Epaitegia.....943 03 34 00
- Iberdrola.....900 17 11 71
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Eibar Ospitalea.....943 03 29 00
- Mendaro ospitala.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza.....943 53 17 00
- Eusko Tren.....944 33 33 33
- Lurraldebus.....900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63
- Grupo Egun Bat (Jokazale Anonimo eta Familiak) ...699 37 75 20

SUDOKUA

AURREKOAREN
 EMAITZA

4	6	2	7	9	1	5	8	3
3	5	7	4	8	2	9	1	6
9	8	1	3	5	6	4	7	2
6	1	4	8	2	3	7	9	5
7	2	8	5	6	9	1	3	4
5	3	9	1	4	7	2	6	8
8	4	6	9	7	5	3	2	1
1	9	5	2	3	8	6	4	7
2	7	3	6	1	4	8	5	9

		1	2	3				
					6	4	2	
	4				9		6	
9	1					2		
			1		5			
		6					3	5
	8		3				9	
	7	2	6					
				5	2	8		

Barixakua 7

ZINE-FORUMA

19:00. *"La chica danesa"* (Tom Hooper), Pagatxaren eskutik. Dinamizatzailea: Izaskun Rodriguez Elkoro. Jarduera doakoa eta irekia. Portalean (areto nagusian).

ANTZERKIA

19:00. *"Novios"* antzezlan, Juanma Cano eta Maite Lorenzorekin. Antxon gozotegian.

BILERA IREKIA

19:00. Sanjuanak prestatzeko, Jaixak Herrixak Herrixandakok deituta. Txaltxa Zelaian (eguraldi txarra eginez gero, Arrate Kultur Elkarte, 1. pisuan).

URKIKO JAIK

19:00. Jaien hasiera. Arrateko Andra Mari herri ikastetxean.

19:30. II. Futbolin txapelketa. Vila tabernan.

19:30. Kalejira, Ustekabe txarangarekin.

19:30. Herri jolasak. Arrateko Andra Mari ikastetxean.

19:30. Nagusiei omenaldia, Cepa tabernaren parean.

20:00. Herri-txikiteoa, Ustekabe txarangarekin.

23:30. Erromeria, Ekhy taldearekin. Polonia Etxeberria kalean.

DANTZA

20:00. *"Birakatube"*, ikasturte amaierako emanaldia, Biraka Dantzaren eskutik. 3 euro. Coliseoan.

Zapatua 8

EIBARKO ITZULIA

07:00/17:00. Eibarko mendi itzulia, Klub Deportiboaren eskutik. Irteera Toribio Etxebarriatik.

KIROLA EUSKARAZ BIZI

09:00. Kirola Euskaraz Bizi olinpiada txikiak. Iturburun.

ROLLERSKI ERAKUSKETA

11:00/13:00. Rollerski erakusketa. Eibarko Bizikleta Plazan.

TXARTELEN SALMENTA

11:00/14:30 eta 17:30/19:00. Sanjuanetako herri-bazkarirako txartelen salmenta eta lanerako txandak banatzea. Gaztetxean.

URKIKO JAIK

11:00. VIII. Txiki-Krosa, Urki-Kurutzekuan (parkean).

11:30. Kalejira, auzoko kaleetan zehar, trikitilari eskolaren eskutik.

12:30. Salda eta txorizo banaketa. Vila eta Cepa tabernen parean.

12:30/14:00. Herri kirolak, Ernesto Ezpeleta "Bihurri" aizkolariaren eskutik.

16:30/18:30. Puzgarriak eta jolasak. Arrateko Andra Mari ikastetxean.

17:00. VI. Esku Pilota Txapelketa, Maialen frontoian. Eibarko Esku Pilotaren eskutik.

17:00. XVI. Igel-toka txapelketa. Rioja tabernaren parean.

19:00. Cava eta otarrainxka jai, Sanbalu taldeak girotuta. Cepa, Nuevo, Rioja, Bodega eta Vila tabernen laguntzarekin.

23:30. Kontzertua: Tributo AC/DC BS/RS Bon Scott Revival Show+DJ San. Polonia Etxeberria kalean.

IV. GIPUZKOA ZURIGORRIA / PEÑA TXINBERA

11:00. Txupinazoa eta hamaiketako Peña Txinberaren lokalean.

12:00. Umeentzako puzgarriak. Untzagan.

12:30/14:00. Trikipoteoa Eibarko kaleetan zehar, Eibarko Trikitilari Gazteekin.

14:15. Argazki ofiziala Untzagako gradetan.

14:30. Bazkaria karpan.

16:00. Sari banaketa.

16:30. Herri-kirolen erakustaldi mistoa.

18:00. Txarangapoteoa Eibarko kaleetan zehar Ustekabe Fanfarrearekin.

19:30. Pintxoak Txinberako guztientzat Slow kafetegian.

20:00. Los Chimberos taldearen kontzertua.

22:00. Eirband taldearen kontzertua.

00:00. Mugi Panderoa taldearen kontzertua.

ATZEGI

14:00. Atzegiko familien topaketa eta bazkaria. Untzagan.

PAILAZOAK

18:00. *"Detektibeak"*, Monda eta Lirondaren eskutik, doan. El Corte Inglesean (ekitaldi aretoan).

POESIA

20:00. VII. Poesia eta Musika Gaua. Itzamna Poesia tailerrak antolatuta. Ibarkurutzeko iturrian.

Domeka 9

TXORI KANTARIK

09:00/14:30. Eibarko Hiria XX. txapelketa, JJJ Memoriala. Arraten (euria egingo balu, Altzubarreneko frontoian).

URKIKO JAIK

09:30. XI. Galdaramiñorako igoera eta Atzegi mendi martxa (10:00etan).

11:00. Os Galaicos, As Burgas Galiziako Etxeko gaitajoleen kalejira.

12:30. XXI. Paella Lehiaketa.

12:45. Eibarko Cielito Bandaren kontzertua.

13:00. Hildakoen omenezko meza, San Jose Obrero elizan.

14:30. Paella lehiaketaren erabakia.

16:45. Euskalzumba Xaiborren eskutik. Arrateko Andra Mari ikastetxean.

18:30. Txokolate-jana. Arrateko Andra Mari ikastetxean.

19:00. Sari banaketa. Polonia Etxeberria kalean.

19:30. Musika festa, Maran taldearen eskutik. Polonia Etxeberria kalean.

20:30. Jaien amaiera.

KROSA

11:00. Amaña herri ikastetxearen Krosaren XXXVI. urtemuga. Izen-ematea egunean, 10:00-etatik 11:00-etara. Amañan.

JAIALDIA

12:00. Eid fitr jai. Ongietorria.

12:30. Dastatze popularra.

13:00/14:00. Informazio gunea. Umeentzako puxika tailerra.

13:00/15:00. Henna tailerra.

14:00/15:30. Musika taldea (Dakka Marrakchia). Eibarko Gazte Safa eta Toyor Al Jannah elkartearen eskutik. Untzagan.

Astelehena 10

IKASTEN

10:30. Antzerkia. Luzatze ariketak. Portalean.

ELKARRETARATZEA

12:00. Jubilatuta eta pentsiodunena, pentsio duinak eskatzeko. Untzagan.

BIDEO-FORUMA

18:30. Emakumeen Istorioak: Mariana Pineda, Pagatxaren eskutik. Dinamizatzailea: Patricia Perex. Doakoa eta irekia. Portalean (ikastaro gelan).

Martitzena 11

IKASTEN

16:00/19:00. Puntu-tailerra.

17:00/20:00. Joskintza-tailerra. Portalean.

GARAGARDO JAIK

19:00. XVII. Garagardo Jai, Eibar Rugby Taldeak antolatuta. Untzagan.

DANTZA

20:00. Eibarko dantza garaikide taldearen ikasturte amaierako emanaldia. 3 euro. Coliseoan.

Eguaztena 12

KONTZERTUA

17:00. Untzagako jubilatuen abesbatzaren emanaldia. Egogain Zentroan.

GARAGARDO JAIA

19:00. XVII. Garagardo Jaia, Eibar Rugby Taldeak antolatuta. Untzagan.

DANBORRADA KO ENTSEGUA

19:00. Umeen entsegua.
20:00. Nagusien entsegua. Bittor Sarasketako 7an (Beistegi eraikinean).

EIBAR KO KANTUZALEAK

19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokalean.

DANTZA

20:00. Eibarko dantza garaikide taldearen ikasturte amaierako emanaldia. 3 euro. Coliseoan.

Eguena 13

TAILERRA

09:00/13:30. "Marketing Day": LinkedIn-en ingurukoa, Asier Elorriagaren eskutik. Ekingunek antolatuta. Ipuru KEaren ikasgelan.

KALEETAN KANTUZ

17:00. Kaleetan Kantuz dantza taldearen entsegua (hastapena, beteranoen entsegua **18:00**etan hasiko da). Untzaga jubilatuta etxean.
19:30. Kaleetan Kantuz abesbatzaren entsegua. San Andres lokaletan.

HITZALDIA

19:00/21:00. "Atzerritartasun arautegia". Portalean (ikastaro gelan).

GARAGARDO JAIA

19:00. XVII. Garagardo Jaia, Eibar Rugby Taldeak antolatuta. Untzagan.

AMAÑAKO DANBORRADA

19:00. Umeen entsegua.
20:00. Nagusien entsegua. Amañako herri ikastetxean.

DANTZA

20:00. Eibarko dantza garaikide taldearen ikasturte amaierako emanaldia. 3 euro. Coliseoan.

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, Nora eta Ibon, maiatzaren 24an MALENeN amatxo eta aitaxo izan zarielako. Musu pilla bat famelixa guztiaren partez.



Ongi etorri, HELENE Garcia-Pascual Ramos, maiatzaren 18xan gure artera etorri zifian-eta. Amama eta aittittaren partez.



Zorionak, IBAI, atzo 6 urte bete zenduaz-eta. Besarkada erraldoi bat famelixa guztiaren partez. Aupa txapeldun!



Zorionak, INES, martitzenian 12 urte bete zenduaz-eta. Etxeko danon eta, bereziki, amama eta aitxitxaren partez.



Zorionak, OIER Miguel Caravantes, gaur 7 urte betetzen dozuzelako. Gaur danok alkarrekin ospatuko dogu!!



Zorionak, MADDI, gaur 15 urte beteko dozuzelako. Ondo-ondo pasa hor Santander aldian. Etxekuen partez.




Zorionak, UNAX!, gaur 7 urte egitten dozuz-eta. Milla patxo famelixa guztiaren partez.



Zorionak, UNAI, gaur 3 urte betetzen dozuz-eta. Musu haundi bat aitaxo, amatxo eta Mikelen partez.



Zorionak, MAIALEN, gaur 3 urte betetzen dozuz-eta: Musu haundi bat aitxitxa eta amamaren partez.



Zorionak, LAIDA, neska haundi! 6 urte betetzen dozuz gaur! Sei milla musu potolo etxeko danon partez.



Zorionak, MARKO, gure etxeko txixixak 8 urte bete dittu-eta. Musu potolua etxekuen eta, batez be, Telmoren partez.



Zorionak, IZARO, haraiñegun 8 urte egin zenduaz-eta. Musu haundi bat etxekuen eta, batez be, Landerren partez!



Zorionak, NAHIA!, aurreko domekan urtetxua bete zenduaz-eta. Patxuak famelixa guztiaren eta, batez be, Malenen partez.



Zorionak, guapitos!!! JOKIN (bixar 16 urte beteko dozuz) eta MIREN (martitzenian 21 urte). Patxo asko guztion partez.



Zorionak, IZARO, eguaztenian 11 urte bete zenduaz-eta. Aitxitxa, amama, osaba eta lehengusuaren partez.

i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako **PREZIOAK**, beti ere **4 ASTERAKO**, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisua salgai J. Etxeberria kalean. 3 logela, 2 egongela, sukalde eta komuna. 85 m². Kalefakzioarekin. Tel. 615-781231.

1.2. Errentan

- Pisua alogagai Donostiako Antigua auzoan, abuztuaren 15etik irailaren 15era. Hondartzatik 5 minutura. 55 m². Berriztuta eta igogailuarekin. 2 logela, egongela-jangela-sukaldea, komuna eta Wifia. Hamabostaldia 1.600 eurotan. Tel. 669-027734. Angel.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Erreferentziak. Tel. 666-197831.
- Pisu zoragarria alogagai Donostian, ekainaren 1etik irailaren 30era. 2 logela, sukalde-egongela eta 2 komun. 3 igogailu eta garajearekin. Tel. 689-232882. Judith.

3. Lokalak

3.2. Errentan

- Lokala alogagai T. Etxebarria kalean. 25 m². Bulego, profesional, kontsulta, akademia etabarrerako egokia. Tel. 616-175672.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko ekainetik aurrera. Tel. 655-778451.
- Mutila eskaintzen da garbiketarako egiteko. Tel. 602-368727.
- Neska eskaintzen da pegorak garbitzeko. 09:00etatik 11:00etara eta 15:30etik aurrera. Tel. 685-185462.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta sukalde-laguntzaile moduan. Esperientzia eta gida-baimena. Tel. 655-132769 eta 652-587259.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia eta formakuntza. Tel. 667-060292.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka, asteburuetan edo gauzez. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 652-668877.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 643-374471.
- Emakumezkoa eskaintzen da arratsalde nagusiak zaintzeko. Tel. 626-197217.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduetegi malgua. Interna. Tel. 631-906590.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-375088.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-601987.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Asteburuak barne. Tel. 689-003537.
- Neska euskalduna eskaintzen da estetika lanak egiteko. Ikasketak eta esperientziarekin. Tel. 655-778451.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Asteburuak barne. Tel. 631-369988.

- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. Tel. 697-764177.

- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Asteburuak barne. Baita gauzez ospitalean ere. Tel. 632-098382.

- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Asteburuak barne. Tel. 631-199421.

- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Asteburuak barne. Tel. 662-491405.

- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Eguerdiz eta gauzez. Ziurtagiriarekin. Tel. 632-229972. Jeamilet Mairena.

- Mutila eskaintzen da garbiketarako egiteko, laguntzaile moduan eta baserrian jarduteko. Tel. 643-961051.

- Mutila eskaintzen da artz edo pintore jarduteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 617-773202.

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-405748.

- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Formakuntzarekin. Tel. 617-896989.

- Emakumezkoa eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Asteburuak barne. Baita abuztuan ere. Tel. 688-664127.

- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 650-152866.

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 632-486996.

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 722-228156.

- Emakume euskalduna eskaintzen da ekainean eta uztailen umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 626-144098.

- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta sukalde lanetarako. Esperientzia. Tel. 631-950442.

- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 644-558390.

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 612-250984.

- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 10 urteko esperientzia. Tel. 667-034344.

- Emakumezkoa eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 612-296098.

- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita gauzez ere. Tel. 678-112785.

- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 662-003400.

- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 645-219783. Margarita.

- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 631-759507 eta 662-003400.

- Gizonezkoa eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 631-759507.

- Neska eskaintzen da goizez nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Esperientzia. Tel. 680-526228.

- Gizonezko autonomia eskaintzen da banaketak egiteko. Furgonetarekin. Tel. 643-072874.

- Emakumezkoa eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 602-843984.

- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 612-422256.

4.2. Langile bila

- Emakumezko euskalduna behar da umeak zaintzeko. Jornada edo lanaldi erdia. Tel. 652-768569.

- Neska euskalduna behar da umea zaintzeko. Uztailen goizez. Tel. 649-781942.

- Kamarera/o behar da Eibarren. Esperientziarekin. Tel. 627-664988.

- Euskeraz dakien neska behar da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 699-024156.

- Kamarera behar da. Esperientziarekin. Bidali curriculum-a: 1539cristina@gmail.com

- Neska euskalduna behar da Azpeitian arratsaldeko 17:00etatik 21:30ak arte nagusia zaintzeko. Uztailetik aurrera. Tel. 653-723095.

- Ilepaintzailea behar da Elgoibarko ileapaindegi batean. Egun eirdirako. Tel. 943-246225. Nerea.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- Neska euskalduna eskaintzen da uztailen LH eta DBH ikasleei errefortzu klaseak emateko. Tel. 688-608922.

- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.3. Galdu/Aurkitu

- Giltzak aurkitu dira Urkizuko parke inguruan. Jabeak Udaltzaingora jo dezake.

6.4. Bestelakoak

- Ekainaren 8an autoa konpartituko nuke Bilbora joateko. Bizkaiko Diputaziorako oposaketa-azterketa egiteko. Tel. 626-144098.

943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eus

Oñati gestio
heziketa

MGEP
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP

Goi Mailako HEZIKETA ZIKLOAK

lanerako gertu!

Izen-ematea

Ekainaren 3tik 14ra

Eskaintza akademikoa

OÑATI GESTIO HEZIKETA

- Administrazioa eta Finantzak
- Zuzendaritza Idazkaritza
- Salmenta Kudeaketa

MGEP

- Automatizazioa eta Robotika Industrialia
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialia

www.mondragon.edu/ogh
rigarza@mondragon.edu
943 71 80 09

www.mondragon.edu/gmhz
gmhz.mgep@mondragon.edu
943 71 21 91



IES UNIBHI

HEZIKETA ZIKLOAK A ETA D EREDUAK

Aurrematrikula epea: Ekainaren 3tik 14ra
Matrikula epea: Uztailaren 11tik 17ra

PROIEKTUAK ETA JARDUERAK

- Praktika Atzerrian (ERASMUS+)
- Lanbide-Heziketa Duala (HEZIBI)
- Ikaskuntzak Eszenatokiak
- Osasunarentzako Programa
- Enpresa Birtuala
- UNI Encounter
- UrratsBat
- Hizkuntzaren Normalkuntza
- Nazioarteko Ikasle-trukea
- Ikasle Lan Poltsa



www.facebook.com/iesunibhi/



[uni.eus](https://www.instagram.com/uni.eus/)

www.uni.eus
idazkaritza@uni.eus
Tel. 943208444

HEZIKETA FISIKOA

- * Egokitze Fisikoa (*Goi maila*)
- * Gizarte eta Kirol Animazioa eta Irakaskuntza (*Goi maila*)

INFORMATIKA

- * Sistema Mikroinformatikoa eta Sareak (*Erdi maila*)
- * Sareko Informatika Sistemen Administrazioa (*Goi maila*)
- * Plataforma Anitzeko Aplikazioen Garapena (*Goi maila*)
- * Web Aplikazioen Garapena (*Goi maila*)

MARKETING ETA MERKATARITZA

- * Merkataritza Iharduerak (*Erdi maila*)
- * Nazioarteko Merkataritza (*Goi maila*)

ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA

- * Administrazio Kudeaketa (*Erdi maila*)
- * Administrazioa eta Finantzak (*Goi maila*)
(goizez eta eskaintza partzalean arratsaldez)



BELAUSTEGI BASERRIA

jatetxea restaurante

20. URTEURRENA

